

C. A. Osasunaren Estatutuakosasuna

AZKEN EGUNERAKETA 2023KO AZAROA



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA

Eduki Taula

01 I. TITULUA. ERAKUNDEAREN EGITURA.

- 01 1. artikulua. Izena eta izaera juridikoa
- 01 2. artikulua. Legeria aplikagarria.
- 01 3. artikulua. Egoitza soziala.
- 01 4. artikulua. Ezaugarri bereizgarriak.
- 02 5. artikulua. Xede soziala.
- 02 6. artikulua. Berezko hizkuntza ofizialak.
- 02 7. artikulua. Eremua.
- 03 8. artikulua. Iraupena eta ondarea.

03 II. TITULUA. BAZKIDEAK ETA ZALEAK.

- 03 9. artikulua. Definizioa.
- 04 10. artikulua. Eskubideak.
- 06 11. artikulua. Betebeharrak.
- 07 12. artikulua. Kopurua.
- 07 13. artikulua. Bazkide izaera galtzea.
- 07 14. artikulua. Zuzenean parte hartzeko mekanismoak.

09 III. TITULUA. CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN GOBERNU ORGANOAK.

- 09 15. artikulua. Motak.
- 09 1. KAPITULUA. BATZAR NAGUSIA.
- 09 16. artikulua. Definizioa eta osaera.
- 10 17. artikulua. Batzarreko kideen hautaketa.
- 11 18. artikulua. Batzarkideen agintaldiaren iraupena.
- 12 19. artikulua. Batzar Nagusi motak.
- 17 20. artikulua. Batzar Nagusien deialdiak eta bilerak.
- 19 21. artikulua. Batzar Nagusien erabaki hartzeak.
- 19 2. KAPITULUA. HAUTESKUNDE BATZORDEA.
- 19 22. artikulua. Definizioa eta osaera.
- 20 23. artikulua. Hauteskunde Batzordeko kideen hautaketa.
- 22 24. artikulua. Hauteskunde Batzordearen agintaldiaren iraupena.
- 22 25. artikulua. Hauteskunde Batzordearen eginkizunak.
- 23 3. KAPITULUA. BAZKIDEAREN DEFENTSARAKO ORGANOAK.
- 23 26. artikulua. Definizioa eta osaera.
- 24 27. artikulua. Bazkidearen Defentsarako Organoaren kideen hautaketa.
- 26 28. artikulua. Bazkidearen Defentsarako Organoaren kideen agintaldiaren iraupena.
- 26 29. artikulua. Bazkidearen Defentsarako Organoaren eginkizunak.
- 27 30. artikulua. Erreklamazioak tramitzeko prozedura.

28 **4. KAPITULUA. PRESIDENTEA.**

28 **1. ATALA. PRESIDENTEAREN HAUTAKETA.**

28 31. artikulua. Hautagaitza eta pertsona hautagarriak.

28 32. artikulua. Ondare bermeak.

30 33. artikulua. Presidente izateko hauteskundearen deialdia.

30 34. artikulua. Hauteskunde prozesua.

34 35. artikulua. Hauteskunde mahaiak.

34 36. artikulua. Hauteskunde mahaien osaera.

35 37. artikulua. Hauteskunde mahaien eginkizunak.

35 38. artikulua. Hautagaitzen ahalduak.

36 39. artikulua. Posta bidezko botoa.

37 **2. ATALA. PRESIDENTEAREN EGINKIZUNAK
ETA AGINTALDIA.**

37 40. artikulua. Eginkizunak eta eskumenak.

38 41. artikulua. Agintaldiaren iraupena.

38 **5. KAPITULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEA.**

38 42. artikulua. Izendapena.

39 43. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen osaera.

39 44. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen
eginkizunak eta eskumenak.

41 45. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen a
gintaldiaren iraupena.

41 46. artikulua. Jarraipen prozesua.

42 47. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen bilerak.

42 48. artikulua. Informazio Batzordeak.

43 49. artikulua. Presidenteordea.

43 50. artikulua. Idazkaria.

43 51. artikulua. Diruzaina.

44 52. artikulua. Batzordekideak.

44 53. artikulua. Ardurak.

44 54. artikulua. Zentsura mozioa.

45 **6. ATALA. KUDEAKETA BATZORDEA.**

45 55. artikulua. Izendapena.

46 56. artikulua. Kudeaketa Batzordearen
osaera eta eginkizunak.

46 **7. KAPITULUA. KUDEAKETAKO INFORMAZIO ETA
GARDENTASUN ORGANOA EDO
KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEA.**

46 57. artikulua. Definizioa eta osaera.

47 58. artikulua. Kontrol Ekonomikoaren
Batzordeko kideen hautaketa.

49 59. artikulua. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko
kideen agintaldiaren iraupena.

50 60. artikulua. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko
kideen konfidentzialtasuna.

50 61. artikulua. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko
eginkizunak.

52 62. artikulua. Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen
eskumenak.

53 **8. KAPITULUA. DIZIPLINA ORGANOA.**

53 63. artikulua. Definizioa eta osaera.

53 64. artikulua. Diziiplina Organoko kideen hautaketa.

55 65. artikulua. Diziiplina Batzordeko kideen agintaldiaren
iraupena.

56 66. artikulua. Diziiplina organoaren eginkizunak.

56 67. artikulua. Eremua eta arau hausteen sailkapena.

57 68. artikulua. Arau hausteen tipifikazioa.

60 69. artikulua. Diziiplina prozedura.

61 70. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa.

62 **IV. TITULUA. DOKUMENTUEN,
KONTABILITATEAREN, EKONOMIAREN
ETA FINANTZEN ARAUBIDEA.**

62 **1. KAPITULUA. DOKUMENTUEN ETA
KONTABILITATEAREN ARAUBIDEA.**

62 71. artikulua. Dokumentuen eta kontabilitatearen
arabidearen osaera.

63 **2. KAPITULUA. EKONOMIAREN ETA FINANTZEN
ARAUBIDEA.**

63 72. artikulua. Aurrekontu araubidea.

64 **V. TITULUA. CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN
ESTATUTUAK ALDATZEA.**

64 73. artikulua. Estatutuak aldatzea.

65 **VI. TITULUA. CLUB ATLÉTICO OSASUNA
DESEGITEA, BAT EGITEA, XURGATZEA
EDO TRANSFORMATZEA.**

65 74. artikulua. Desegiteko, bat egiteko, xurgatzeko edo
transformatzeko modua.

65 **VII. TITULUA. LAGUNARTEAK.**

65 75. artikulua. Lagunarteak.

66 76. artikulua. Club Atlético Osasunaren lagunarte
ofizial bat izateko baldintzak.

66 77. artikulua. Eskara eta betebeharrak.

67 78. artikulua. Lagunarte izaera galtzea.

I. TITULUA

ERAKUNDEAREN EGITURA

1. ARTIKULUA

IZENA ETA IZAERA JURIDIKOA

Club Atlético Osasuna Kirol Elkarte pribatua da, ez du irabazi asmorik eta 1920. urtean kirol jarduerak egiteko asmoz sortu zen, bereziki, futbola. Berezko nortasun juridikoa du, baita jarduteko gaitasun osoa ere.

2. ARTIKULUA

LEGERIA APLIKAGARRI

Club Atlético Osasuna unean-unean indarrean dauden lege xedapenek arautuko dute. Hauek, esaterako: Elkartze-ko Eskubidea arautzeko Lege Organikoa; Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legea; 80/2003 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, Nafarroako Kirol Erakundeak eta Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroa arautzen dituenak; eta estatutu hauek; baita, izanez gero, barne araudiak eta gobernu eta ordezkaritza organoek balioz hartutako erabakiak ere. Nafarroako Futbol Federazioan, Real Federación Española de Fútbol erakundean eta Liga Nacional de Fútbol Profesional lehiaketan afiliatua dago; halaber, Nafarroako Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratuta dago.

Era berean, estatutu hauek onartzen direnean kirolaren arloan indarrean dauden arauak aplikatuko zaizkio edo, gai honekin erlazionatuta, etorkizunean onar daitezkeenak aplikatuko zaizkio.

3. ARTIKULUA

EGOITZA SOZIAL

Club Atlético Osasunak Iruñean du egoitza soziala (Sadar karrika z.g., Sadar estadioa), 31006 Iruñea.

4. ARTIKULUA

EZAUGARRI BEREIZGARRIAK

Club Atlético Osasunaren kolore ofizialak gorria eta itsas urdina dira. Lehen ekipamendua kolore gorriko kaminisetak, itsas urdin koloreko galtzek eta galtzerdi beltzek osatzen dute. Banderak bi zerrenda horizontal berdin ditu, goikoa gorria eta itsas urdina behekoa. Armarrria egun Patente eta Marken Erregistro Ofizialean erregistratuta dagoena da:



Bestelako koloreko jantziak ere izan ahalko dira.

5. ARTIKULUA

XEDE SOZIALA

Club Atlético Osasunaren xede soziala da jarduerak hauek egitea:

- a) Parte hartzea futboleko edo beste kirol batzuetako lehiaketa ofizialetan, hala lagunartekoetan nola profesionaletan nahiz amateurretan, bai gizonetzkoen lehiaketetan bai emakumezkoen lehiaketetan, baita kirol hori sustatzea eta irakastea ere.
- b) Modalitate bateko edo hainbat modalitatetako kirol jarduerak sustatzea eta garatzea, hala maila profesionalean nola amateurrean, bai gizonetakoetan bai emakumezkoetan, baita jarduera horretatik eratorritako beste batzuk ere.
- c) Club Atlético Osasunaren alderdi solidarioa eta soziala sustatzea Club Atlético Osasuna Fundazioaren bidez eta/edo Nesken Osasuna Fundazioaren bidez.
- d) Zuzeneko edo zeharkako lankidetzaz izatea Club Atlético Osasuna Fundazioarekin eta Nesken Osasuna Fundazioarekin, baita Club Atlético Osasunak parte hartzen duen beste edozein fundaziorekin ere.
- e) Bere harrobi filosofia errespetatzea, beheko kategorietan trebatutako jokalarien alde egitea eta sortu zenetik izandako idiosinkrasia errespetatzea.

6. ARTIKULUA

BEREZKO HIZKUNTZA OFIZIALAK

Club Atlético Osasunaren berezko hizkuntzak gaztelania eta euskara dira, eta, berezkoak direnez, normal erabiliko dira Club Atlético Osasunaren jardura guztietan. Ildo horretan, elebitasuna erabiltzea lehenetsiko da eta Club Atlético Osasunak bere berezko hizkuntza ofizialak bere langile eta kirolari guztiek ikastea sustatuko du eta lagunduko du.

7. ARTIKULUA

EREMUA

Club Atlético Osasunaren jardun eremua estatu mailakoa eta nazioartekoa da, bai lehiaketa ofizialetakoa bai pribatuetakoa, erakunde hauek ezarritako arauen arabera: Federation International de Football Association (FIFA),



Union of European Football Associations (UEFA), Real Federación Española de Fútbol (RFEF), Liga Nacional de Fútbol Profesional (LFP) eta erakunde eskudunak; baita, bestelako kirol jardueraz ari garela, kirol horietako federazioen arabera ere.

8. ARTIKULUA

IRAUPENA ETA ONDAREA

Club Atlético Osasuna epemugarik gabe dago osatuta.

Club Atlético Osasunaren ondarea bere ondasunak eta eskubideak ustiatzetik dagozkion ondasunek eta eskubideek eta lortzen dituen ekarpenek osatzen dute.

II. TITULUA

BAZKIDEAK ETA ZALEAK.

9. ARTIKULUA

DEFINIZIOA

a) Bazkideak: pertsona fisiko edo juridikoak dira, ezarritako baldintzak bete ondoren onartu direnak, eskubideez baliatu eta estatutu hauetako betebeharrak inolako erreparorik gabe onartzen dituztenak.

a.1) Bazkide gazteak izango dira hemezortzi (18) urtetik beherako bazkideak, eta adin nagusiko bihurtzen direnean, bazkideak izango dira eta bazkideen eskubideak izango dituzte.

a.2) Bazkide batek, izan pertsona fisikoa izan juridikoa, behin bakarrik izango du izaera hori norbanako gisa, kontuan izan gabe bere izenean edo sozietatearen izenean esleitutako abonamendu kopurua.

a.3) Bazkideen antzintasuna Club Atlético Osasunan sartzen diren egunetik aurrera hartuko da kontuan, betiere izaera hori etenik gabe mantentzen bada.

a.4) Batzar Nagusiak, Club Atlético Osasunaren Zuzendaritza Batzordeak hala proposatuta, ohorezko bazkideak izendatu ahal izango ditu, Club Atlético Osasunaren aldeko meritu pertsonalak eta profesionalak aitortzeko.

b) Zaleak: Club Atlético Osasunako bazkideak izan gabe, Club Atlético Osasunaren barnean izaera horrek ematen dizkien jardueretako batzuetan parte hartu nahi duten pertsona fisikoak edo juridikoak dira.



Bazkide eta zale izaera pertsonala eta besterenezina da.

10. ARTIKULUA ESKUBIDEAK

Club Atlético Osasunako kide guztien berdintasun printzipioa onartzen da, eta ez da bereizkeriarik edo tratu bereizirik nagusituko jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, ideologia, iritzia edo edozein baldintza sozial edo pertsonal dela-eta.

a) Bazkideek eskubide hauek izango dituzte:

a.1) Bazkidearen kuotari dagokion eserlekua okupatuz, betiere dagokion zenbateko osoa ordaindu badu, estadioan jokatzaren diren eta Club Atlético Osasunak parte hartzen duen lehiaketetako partidetan zein lagunartekoetan bertan izatea, salbuespen hauekin:

a.1.1) Estadioa gobernuak/administrazioak edo kirol arloak ixten badu.

a.1.2) Zuzendaritza Batzordeak zelaia beste erakunderen bati uztea erabaki badu.

a.1.3) Club Atlético Osasunari laguntzeko Zuzendaritza Batzordeak aditzera emandako partidak badaude. Horrelako partidak ezingo dira izan bi (2) baino gehiago denboraldi bakoitzeko.

a.1.4) Zuzendaritza Batzordeak abonamenduz kanpokotzat jotzen dituen bestelako lehiaketa ofizialetako partidak jokatzaren badira.

a.1.5) Ongintzako kausa baten aldeko lagunarteko partidak jokatzaren badira.

a.1.6) Salbuespenezko ikuskizunak izaten badira.

a.1.7) Ezinbesteko baldintzak edo larrialdiko egoera sanitarioak badaude.

a.2) Club Atlético Osasunaren antzinatasuna mantentzea sartu zenetik hasita, betiere kuoten ordainketa egunean badu.

a.3) Bazkidea dela adierazten duen txartela edo titulua izatea, eta txartel hori erabiliko du estadiora sartzeko, txartelean agertzen den eserlekuan esertzeko. Txartela galdu edo lapurtuz



gero, berri bat emango zaio bazkideari eta bertan jarriko da kopia bat dela, eta lehenengoa baliogabetu egingo da ondorio guztietarako. Kasu honetan, bazkideak ordainduko du kostua.

a.4) Hirugarrenei doan eta irabazi asmorik gabe uztea aipatutako txartelean edo tituluan agertzen den bazkideari erreserbatutako eserlekua, baldin eta onuradunak betetzen baditu bazkideari eserlekua emateko jarri zitzaizkion baldintza berdinak edo txikiagoak.

a.5) Beste bazkide batekin, elkarren artean adostuta eta doan, eserlekua trukatzea. Berritzeko eta bazkide berriak atzemateko epea amaitu ondoren, Club Atlético Osasunak epe bat irekiko du, dagokion eskaeraren bidez, eserlekua aldatu nahi duten bazkideek aldatu ahal izateko.

a.6) Lehentasuna izatea Sadar estadioko partidetakoa sarrerak erosteko eta Sadarretik kanpoko partidetan zale bisitari izateko sarrerak erosteko, eta Club Atlético Osasunak diruz lagundu ditzakeen bidaietan deskontuak izateko eskubidea izatea.

a.7) Club Atlético Osasunaren jarduerak ezagutzea eta bere kontabilitate dokumentazioa aztertzea Batzar Nagusiaren erabakiak onar dezan. Horretarako, Club Atlético Osasunak bere webgunean jarriko dizkie bazkideei urteko kontuak, auditoretza txostena eta urteko memoria.

a.8) Informatuta egotea estatutu hauen arabera.

a.9) Aparteko Batzarrak egin daitezela sustatzea estatutu hauetan adierazitako kasuetan.

a.10) Hautesle izatea Club Atlético Osasunaren gobernu organoetarako, betiere adin zibilaren nagusitasuna badu eta Club Atlético Osasunaren erroldan gutxienez urte bateko (1) etenik gabeko antzintasunarekin erregistratuta badago.

a.11) Hautagarri izatea Club Atlético Osasunaren gobernu organoetarako, betiere adin zibilaren nagusitasuna badu, pertsona fisikoa bada, Club Atlético Osasunaren erroldan erregistratuta badago eta bazkide gisa eskatzen den gutxieneko antzintasuna gainditu badu, kide izan nahi duen Club Atlético Osasunaren organoan hautatua izateko.

a.12) Club Atlético Osasunarengandik libre eta bere borondatez bereiztea.

a.13) Bazkidearen aurkako diziiplina espediente bat hastea eragiten duten gertaeren berri izatea, diziiplina prozeduran entzuna izatea eta, hala badagokio, zehapena ezartzen duen erabakia behar bezala arrazoitua izatea.



a.14) Club Atlético Osasunari debekatzea hirugarrenei datu pertsonalak entregatzea, bera-riazko baimenik gabe.

b) Eskubideak zalea izateagatik:

b.1.) Lehentasuna izatea Sadar estadioko partidetak sarrerak erosteko eta Sadarretik kanpoko partidetan zale bisitari izateko sarrerak erosteko, eta Club Atlético Osasunak diruz lagundu ditzakeen bidaietan deskontuak izateko eskubidea izatea.

b.2) Club Atlético Osasunaren antzinatasuna mantentzea zale gisa sartu zenetik hasita, betiere kuoten ordainketa egunean badu.

b.3) Club Atlético Osasunarengandik libre eta bere borondatez bereiztea.

b.4) Zalearen aurkako diziplina espediente bat hastea eragiten duten gertaeren berri izatea, diziplina prozeduran entzuna izatea eta, hala badagokio, zehapena ezartzen duen erabakia behar bezala arrazoitua izatea.

b.5) Club Atlético Osasunari debekatzea hirugarrenei datu pertsonalak entregatzea, bera-riazko baimenik gabe.

b.6) Club Atlético Osasunak zehazten duen beste edozein eskubide edo onura izatea.

II. ARTIKULUA BETEBEHARRAK

Bazkideen eta zaleen betebeharrak hauek izango dira:

a) Sarrera eskaeraren bidez formalizatzea inskripzioa; horrek esan nahiko du Club Atlético Osasunaren estatutuak eta gainerako araudia onartzea.

b) Betetzea eta errespetatzea estatutu hauek, Batzar Nagusiak hartutako erabakiak eta Club Atlético Osasunaren gainerako barne arauak.

c) Kuota edo kuotak ordaintzea Batzar Nagusiak onartutako moduan, zenbatekoarekin eta epean.

d) Era aktiboan parte hartzea hautatua izan den Club Atlético Osasunaren organoetan edo instrumentuetan.



- e) Club Atlético Osasunaren izen onari eta sonari ekarpena egitea.
- f) Lankidetzan aritzea Club Atlético Osasunaren helburuak lortzeko.
- g) Halakorik izanez gero, harremanetarako datu informatikoak eta/edo telematikoak ematea, bide telematiko eta/edo digital baten bidez zuzeneko harremana eta pertsonala izateko.

12. ARTIKULUA

KOPURUA

Bazkideen eta zaleen kopurua mugagabea izango da. Aitzitik, Zuzendaritza Batzordeak era arrazoituan bazkide eta zale berriak egiteari uko egin ahal izango dio egokitzen jotzen duenean, estadioko edukiera arrazoiengatik edo Club Atlético Osasunaren intereserako liratekeen beste arrazoi batzuegatik.

13. ARTIKULUA

BAZKIDE EDO ZALE IZAERA GALTZEA

Bazkide edo zale izaera galduko da arrazoi hauengatik:

- a) Club Atlético Osasunari bazkideak idatzitako gutunean hori nahi duela adieraztegatik.
- b) Kirol denboraldian ezarritako ohiko kuotak edo apartekoak ez ordaintzeagatik.
- c) Club Atlético Osasunaren Diziiplina Organoak eta Batzar Nagusiak berretsitako diziiplina espedientean hala adostuta, bazkidea edo zalea kanporatzeagatik.
- d) Heriotzagatik.

14. ARTIKULUA

ZUZENEAN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

Gardentasuna eta parte hartzea sustatzeko, kalitate demokratikoa areagotzeko eta Club Atlético Osasunako bazkideen eta gobernu organoen arteko harremana hobetzeko, bazkideek zuzenean parte hartzeko mekanismo hauek ezarriko dira:

- a) Zuzendaritza Batzordeak bere eskura dituen baliabide informatikoak eta telematikoak erabili ahal izango



ditu, inkestak eta eztabaidarako foroak egiteko gunea sortzeko; baita Club Atlético Osasunaren bizitzan eragina izan dezaketen kontuei buruz bazkideek zein iritzi duten jakiteko aukera emango duen edozein prozedura telematiko ere, kontsulta egiteko baino ez. Era berean, baliabide horiek erabili ahal izango ditu bazkideentzat interesgarria izan daitekeen informazioa helarazteko.

b) Garrantzi handiko kontuei dagokienez, bazkideak kontsultatzeko prozedura arautu ahal izango da (izan aurrez aurre izan baliabide informatikoen eta telematikoen bidez), eta emaitza loteslea izango da, betiere bazkideen parte hartzea ezarritako quorumera iristen bada eta behar den gutxieneko botoak lortzen badira. Prozedura horri Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiak ekingo dio, beren eskumenen arabera. Kontsultarako deialdiak informazio hau izango du:

b.1) Informazio kanpainaren ezaugarriak eta iraupena. Kanpainak ez du iraungo hamabost (15) egun natural baino gutxiago eta ez da izango hilabete batetik (1) gorakoa.

b.2) Prozesuaren berme sistema eta kontrol neurriak. Horiek zehaztu ezean, hauteskunde prozesuari dagozkion xedapenak kontsultara moldatu beharko dira.

b.3) Parte hartzeko gutxieneko quoruma ezingo da izan Club Atlético Osasunako bazkideen ehuneko berrogeita hamarretik (50) beherakoa.

b.4) Beharrezko gutxieneko botoen ehunekoa ezingo da izan emandako botoen ehuneko berrogeita hamarretik (50) beherakoa.

c) Hauteskunde aldian ezin izango da kontsulta deialdirik egin, ezta hauteskunde prozesua hasteko deialdiaren aurreko sei (6) hilabeteetan ere.

d) Bazkide hautesleek botatu ahal izango dute soilik, baldin eta etenik gabeko urte bateko (1) antzintasuna badute eta ez badute bazkide izaera etenda diziplina zigor batengatik.



III. TITULUA**CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN GOBERNU ORGANOAK****15. ARTIKULUA.****MOTAK**

Club Atlético Osasunaren gobernu organoak Batzar Nagusia, presidentea eta Zuzendaritza Batzordea dira. Beste gobernu organo batzuk Hauteskunde Batzordea eta Kudeaketa Batzordea dira, eta ezarritako eginkizunak eta mugak dituzte.

Gainera, beste aholkularitza organo batzuk daude, esaterako, Kontrol Ekonomikoaren Batzordea eta Bazkidearen Defentsarako Organoa.

Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, barne antolamendua duten eta Club Atlético Osasunaren helburuak lortzea errazten duten beste aholkularitza eta kudeaketa organo batzuk sortzea onartu ahal izango du.

1. KAPITULUA**BATZAR NAGUSIA****16. ARTIKULUA****DEFINIZIOA ETA OSAERA**

Batzar Nagusia da Club Atlético Osasunaren organo gorena.

Legalki eta estatutuen arabera eratutako Batzar Nagusiak balioz hartutako erabakiak nahitaez bete behar dituzte Club Atlético Osasunako bazkideek.

Batzar Nagusia boto eskubidea duten bazkide guztiek osatzen dute. Kopurua milatik (1.000) gorakoa denean, Batzar Nagusia hauek guztiek osatuko dute: Zuzendaritza Batzordeak, hautagaitza aurkeztu dutenen artetik antzi-natasun handiena duten ehun (100) bazkidek, presidente izateari utzi ziotenetik bazkide izaera galdu ez duten eta etenik gabeko urte batetik (1) gorako agintaldia egin duten presidente ohiek, Bazkidearen Defentsarako Organoko kideek, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak eta estatutu hauetan ezarritakoaren arabera batzarkide hautatutako bazkideek. Denek hitza eta botoa izango dituzte. Era berean, Batzar Nagusiko kideak izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, Hauteskunde Batzordeko eta Diziplina Organoko kideak.

**CLUB ATLÉTICO
OSASUNA**

17. ARTIKULUA**BATZARREKO KIDEEEN HAUTAKETA**

a) Club Atlético Osasunaren Batzar Nagusian kide izateko hauteskundeak lau (4) urtean behin deituko ditu Hauteskunde Batzordeak. Hautaketa hori dagokion urteko maiatzean egingo da.

b) Hauteskunde Batzordeak argitara emango ditu hauteskunde prozesuko egutegia eta pausoak, eta kontuan izango dira estatutu hauetan ezarritako baldintzak eta epeak.

c) Martxoan, Club Atlético Osasunak zerrenda bat osatuko du hauta daitezkeen boto eskubidedun bazkideekin. Halaber, bazkide horien sarrera data, izena eta bi abizenak, bazkidearen zenbakia eta NAN zenbakia adieraziko ditu.

d) Zerrenda hori izango da Club Atlético Osasunaren behin-behineko hauteskunde errolda, eta hamabost (15) egunean jendaurrean egongo da bere egoitzan. Epe horretan zehar, bazkideek beren datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzte eta idatziz aurkeztu ahal izango dizkiote Hauteskunde Batzordeari egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak. Batzorde horrek erreklamazio horiek ebatziko ditu eta behin betiko hauteskunde errolda onartuko du bost (5) egun balioduneko epean, hauteskunde erroldaren jendaurreko epea amaitu ondoren kontatzen hasita, Bazkidearen Defentsarako Organoari entzunaldia egin ostean. Hauteskunde Batzordearen amaierako ebazpenak barneko bide asoziatiboa agortuko du.

e) Bazkide gisa baztertuko dira, azken hauteskundeetan batzarkide hautatutako eta kargutik kendutako bazkide guztiak.

f) Kideak hautatzeko, hautagaitza aurkeztu zutenen artetik antzinatasun handieneko lehenengo ehun (100) bazkideak hautatu ondoren, eta beti aipatutako taldeko bazkide zenbaki altuenaren ondoren, dauden bazkide milako adina bazkide zerrenda osatuko dira, zenbakitzearen alderantzizko norabidean zenbatuta, eta bat gehiago, zatikia bada. Zerrendetan ageri diren bazkidetako bakoitza izan daiteke hautagarria. Deialdi horretan, batzarkide gisa hauta daitezkeen bazkideen kopurua adieraziko da. Kopuru hori kalkulatzeko, hogeita hamahiru (33) batu beharko dira ateratzen diren milako edo zatiki bakoitzeko.

g) Batzarkide izateko nahia duten bazkideek hautaketarako ezarritako data baino hogeita (20) egun baliodun lehenago aurkeztuko dute beraien hautagaitza. Hautagaitza hautagaiak aurkeztu eta sinatuko du. Hautagaitza hori era hauetara aurkeztu ahal izango da:

- Aurrez aurre Club Atlético Osasunaren bulegoetan, NANA aurkeztuta eta inprimaki ofizial sinatua entregatuz.
- Deialdian adierazitako helbidera bidaliz, posta elektronikoaren bidez, inprimaki ofizial sinatua eta



NANaren kopia bat.

Bi kasuetan, Club Atlético Osasunaren hartu agiri bat jasoko du. Hautagaitzaren aurkezpen eguna egiaztatzeke balioko du hartu agiri horrek. Dokumenturen bat falta bada edo zuzenketa edo aldaketaren bat egin behar bada, bazkideari horren berri emango zaio jakinarazpena jaso duela egiaztatzeke eran.

h) Hautaketa baino aste bat lehenago Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da deialdiko bazkide hautagarri guztien zerrenda.

i) Hauteskunde Batzordeak zozketaren eguna adieraziko du eta prozesuaren ardura izango duen notaritza izendatuko du. Zozketa Club Atlético Osasunaren egoitza sozilean egingo da.

j) Deialdian adierazten den egunean, izendatutako notaritzak zozketa bat egingo du hogeita hamahiru (33) hautagaitzatik gora dauden milakoetan, aurkeztu diren bazkideen artetik, beraien hautagaitza aurkeztu duten antzinatasun handieneko ehun bazkideak alde batera utzita. Milakoren batean ez bada hogeita hamahiru (33) hautagaitzako kopurua lortzen, gainerako milakoetan, plaza librean kopurua hautatu gabeko hautagaitzen artean zozkatuko da. Prozesu hau amaitu ostean, hautatu gabeko hautagaitzak beraien milakoko ordezkoen zerrendakoak izango dira, zeinak Club Atlético Osasunaren duten sarrera antzinatasunaren arabera ordenatuko diren.

k) Prozesua amaitu ondoren, hautatu diren Batzar Nagusiko kideen zerrenda, baita ordezkoena ere, bazkideek ikusi ahal izango dute Club Atlético Osasunaren webgunean.

18. ARTIKULUA

BATZARKIDEEN AGINTALDIAREN IRAUPENA

a) Club Atlético Osasunaren Batzar Nagusiko kideen agintaldiak lau (4) urte iraungo du. Iraupen hori Batzar berri bat osatu arte luzatuko da, eta berriz hautatu ahal izango dira epealdi berdinetarako. Agintaldi horretan, batzarkide izateak esan nahi du deitzen diren ohiko batzar edo aparteko batzar guztietara joateko eskubidea eta betebeharra izango dela.

Izendapena idatziz jakinaraziko zaie interesdunei, eta agintaldiaren hasiera eta amaiera adieraziko zaie.

b) Batzar Nagusia arrazoi hauengatik desegingo da:

b.1) Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean.

b.2.) Dauden ordezko guztiak amaitu ondoren, baldin eta kide aktibo guztien kopurua Batzarra hautatu zenean zuen kide kopuruaren ehuneko berrogeita hamarretik (50) beherakoa



bada. Hauteskunde Batzordeak hauteskunde berrien deialdia egiten duenean hasiko da desgiteko prozesua, eta Batzar Nagusiko kide berrien hauteskundeetarako ezarritako data baino egun bat lehenago desegingo da.

c) Bazkide bat batzarkide kargutik kenduko da, arrazoi hauengatik:

c.1) Ezgaitasunagatik edo heriotzagatik.

c.2) Bazkide izaera galtzeagatik.

c.3) Agintaldian zehar, bi data desberdinetan, bi (2) batzarretara ez bertaratzeagatik, eskuordetu gabe.

c.4) Agintaldian zehar, data desberdinetan, hiru (3) batzarretara ez bertaratzeagatik, eskuordetuta edo eskuordetu gabe.

d) Batzar Nagusiko kideek dimititu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dioten uko egite baten bidez.

Kargu uztea edo dimisioa jakinarazi ondoren, Batzar Nagusiko kide bihurtuko da hurrengo hautagaitza, ordezkapen ordenaren arabera, lehenik bere milakoaren barnean eta ez badago hautagaitzarik, gainerako milakoe-tan, horiek ere Club Atlético Osasunako sarrera dataren arabera ordenatuko dira. Kargu uztea antzinatasun hantieneko ehun (100) bazkideen taldean gertatzen bada, Batzar Nagusiko kide izango da Club Atlético Osasunako sarrera data antzinakoena duen hautagaitza. Sarrera data edo antzinatasun data berdina den kasuetan, bazkide kopuru txikiena duenak izango du lehentasuna.

19. ARTIKULUA

BATZAR NAGUSI MOTAK

Batzar Nagusiaren bilerak ohikoak eta apartekoak izan daitezke:

a) Ohiko Batzar Nagusia.

a.1) Aurretik horretarako deialdia eginda, urtean behin (1) egin beharko du bilera, ekitaldi ekonomikoa itxi ondorengo sei (6) hilabeteetan eta ordena hau jarraituta egingo da:

a.1.1) Aurreko denboraldiko azalpen memoria aurkeztuko da, eta Club Atlético Osasunaren egoera ekonomikoa, urteko kontuak, auditoretza txostena, kirol egoera eta egoera



soziala aipatuko dira.

a.1.2.) Club Atlético Osasunak partaidetutako fundazio guztien urteko txostena aurkeztuko da.

a.1.3) Kontrol Ekonomikoaren Batzordean txostena aurkeztuko da.

a.1.4) Hurrengo denboraldiko urteko kontuei edo aurrekontuei buruz bazkideek egingako proposamenak. Proposamen horiek gai zerrendan sartuko dira, betiere Batzarra egin baino gutxienez bost (5) egun natural lehenago aurkezten badira eta, gutxienez, Batzarreko kideen ehuneko bostek (% 5) izenpetzen baditu edo bazkide guztien ehuneko hiruk (% 3). Eskararen aurkezpen formalaren aurretik, proposamenen buru direnek Zuzendaritza Batzordeari idatzi bat bidaliko diote beraien helburuaren berri emateko eta, aldi berean, eskatuko dute Zuzendaritza Batzordeak entrega diezazkietela eredu ofizialeko boto paperak eskatzen den beharrezko babesa justifikatzeko. Boto paper horietan, ondo irakurtzeko moduan, jasoko dira bazkidearen izena, bi abizenak eta zenbakia, identitate dokumentua, eskuzko sinadura eta data, eta sinatzen duen bazkidearen identitate dokumentuaren fotokopia erantsiko da.

a.1.5) Aurreko denboraldiko urteko kontuak onartuko dira.

a.1.6) Hurrengo denboraldiko aurrekontu zehaztua aurkeztu eta onartuko da.

a.1.7) Bazkidearen Defentsarako Organoaren urteko txostenaren eta memoria aurkeztuko da.

a.1.8) Galde-erantzunak.

a.2) Batzarraren deialdia egin ondoren, Zuzendaritza Batzordeak Batzarreko kide bakoitzari bidali beharko dio Batzarra egiteko behar den dokumentazioa posta ziurtatu eta/edo posta elektronikoko bidez. Agiri hauek osatuko dute dokumentazioa:

a.2.1) Deialdia eta gai zerrenda.

a.2.2) Aurreko denboraldiko diru sarrera eta gastu kontuak.

a.2.3) Club Atlético Osasunaren ekonomia, finantza, kirol eta gizarte arloetako egoeraren azalpen memoria.

a.2.4) Hurrengo denboraldirako aurrekontu zehatza.



a.3) Halaber, informazio hau Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da eta informazio gehigarri hau erantsiko da:

a.3.1) Ikuskatutako kontuak eta kontuei buruzko auditoreen balorazio txostena.

a.3.2) Taxoareri buruzko urteko txostena.

a.3.3) Fundazioaren urteko txostena.

a.3.4) Bazkideek balioz aurkeztutako proposamenak.

a.3.5) Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen txostena eta balorazioa.

a.3.6) Bazkidearen Defentsarako Organoaren urteko txostena eta memoria.

b) Aparteko Batzar Nagusia.

Urtean behin (1) egingo da eta helburuak hauek izango dira:

b.1) Ohiko Batzarraren helburu gisa jaso ez diren gaiak eztabaidatzea eta onartzea.

b.2) Club Atlético Osasunaren Diziiplina Organoak proposatuta, Zuzendaritza Batzordeak ezarritako zigorrak direla-eta, bazkideek eta zaleek aurkeztutako errekursoak ebaztea.

b.3) Estatutuak aldatzeko behar den adostasuna lortzea.

b.4) Ondasun higiezinaren erosketa edo besterentzea baimentzea.

b.5) Zor tituluen jaulkipena baimentzea.

b.6) Club Atlético Osasunaren jabetzakoa den edo jabetzakoa ez den edozein ibilgetu material eskuratzeko, eraberritzeko edo hobetzeko dirua maileguan hartzeko baimena ematea.

b.7) Dirua maileguan hartzeko edo zorra sortzen duen beste edozein produktu finantzarioarako baimena ematea (Club Atlético Osasunaren jabetzakoa den edo jabetzakoa ez den edozein ibilgetu material eskuratzeko, eraberritzeko edo hobetzeko emandako kredituak izan ezik), betiere mailegu edo produktu finantzario horiengatik eta eskatutakoengatik amortizatu beharreko kapitalaren urteko zenbatekoak ez badu gainditzen, lehen mailan, Club Atlético Osasunaren gastuen urteko aurrekontuaren ehuneko bost (% 5) eta bigarren mailako ehune-



ko hamar (% 10).

b.8) Baimena ematea Club Atlético Osasunaren eskubideak edo jarduerak hirugarrenei saltzeko, bi (2) urtetik gorako epealdi batez, baldin eta eragiketan adostutako diru sarrerek, kontratuak irauten duen urte bakoitzeko, jasotakoaren ehuneko hirurogeita hamarretik beherako sarrerek ekartzen badituzte, aurreko bi (2) denboralditan eta konpara daitezkeen kategorietan.

b.9) Arrisku Kapitaleko Funtsetako, inbertsio funtsetako edo kirol ordezkarien enpresetako kapital ekarpenak baimentzea edo ukatzea Club Atlético Osasunari.

b.10) Club Atlético Osasunaren egoitza soziala Iruñeko udalerritik aldatzeko adostasuna lortzea.

b.11) Club Atlético Osasunaren ezaugarri bereizgarriak aldatzeko adostasuna lortzea.

b.12) Bazkideek adierazitako gaiak eztabaidatzea, betiere Batzarra egin baino gutxienez bost (5) egun natural lehenago aurkezten badira eta, gutxienez, Batzarreko kideen ehuneko bostek (% 5) izenpetzen baditu edo bazkide guztien ehuneko hiruk (% 3). Eskaearen aurkezpen formalaren aurretik, gai horien buru direnek Zuzendaritza Batzordeari idatzi bat bidaliko diote beraien helburuaren berri emateko eta, aldi berean, eskatuko dute Zuzendaritza Batzordeak entrega diezazkietela eredu ofizialeko boto pape-rak eskatzen den beharrezko babesa justifikatzeko. Boto paper horietan, ondo irakurtzeko moduan, jasoko dira bazkidearen izena, bi abizenak eta zenbakia, identitate dokumentua, eskuzko sinadura eta data, eta sinatzen duen bazkidearen identitate dokumentuaren fotoko-pia erantsiko da.

b.13) Zentsura mozioak eztabaidatzea eta onartzea.

b.14) Bazkideen kanporatzea berrestea.

b.15) Zuzendaritza Batzordeko kide berriak ezagutzea.

b.16) Bazkidearen Defentsarako Organoa hautatzea eta izendatzea, organo hori kargutik kendu dadila erabakitzea.

b.17) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideak hautatzea, izendatzea eta, hala badagokio, kargutik kentzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkaria izan ezik.



b.18) Hauteskunde Batzordeko kideak hautatzea, izendatzea eta horiek kargutik kentzea eta ordezkorik ez dagoenean Zuzendaritza Batzordeak izendatutako kide berriak berrestea.

b.19) Club Atlético Osasunaren Diziplina Organoa hautatzea eta izendatzea, eta organo hori kargutik kendu dadila erabakitzea.

b.20) Berrestea babesle nagusiaren publizitatea lehen mailako futbol taldearen ekipamendu ofizialeko kamisetan ezartzeko kontratuak, betiere mezu horren edukiak arazo hauek eragin baditzaie:

b.20.1) Babesletza horren jatorria babesletza instituzionala izatea eta erakunde hori, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera, giza eskubideak errespetatzen ez dituen herrialde batekoa izatea.

b.20.2) Babesletzak nolabaiteko aipamen politiko, erlijioso edo ideologikoa izatea eta Club Atlético Osasunako askotariko bazkide edo kolektiboren bat mintzeko arriskua izatea.

b.20.3) Babesletzatik jasoko den diruaren jatorria lege kanpoko jardueretako izatea edo zerga paradisutzat jotako herrialderen batekoa izatea. Halakoetan, Kapitalen Zuriketari buruzko Legea beteko da.

b.20.4) Prostituzioa edo webgune pornografikoak edo, oro har, Club Atlético Osasunaren irudi eta izen onaren aurka egiten dutela pentsa litekeen bestelako sektoreak iragartzea.

b.21) El Sadar estadioaren izena alda dadila onartzea.

b.22) Club Atlético Osasuna desagiteko, bat egiteko, xurgatzeko edo transformatzeko proposamenak onartzea.

b.23) Bere garaian Club Atlético Osasunaren aktiboaren parte izan zen ondarea berreskuratzeko ekintzen eta proposamenen egoeraren berri ematea.

b.24) Bazkideen hurrengo denboraldiko kuotak alda daitezela onartzea, betiere igoera ez bada aurreko urtekoaren ehuneko hamarretik (% 10) gorakoa.

b.25) Club Atlético Osasunaren pertsona "non grata" izenda daitezela proposatzea eta erabakitzea. Zuzendaritza Batzordeak edo batzarkideek proposatuta, Batzar Nagusiak pertsona non grata izendatu ahal izango ditu Club Atlético Osasunaren izen onaren aurka larriki jardun duten pertsona fisikoak eta juridikoak. Izendapen horrek debekatuko die Club Atlético



Osasunaren bazkideak izatea eta instalazioetara sartzea. Batzarreko kideen % 10ek gutxienez egin beharko du aurkezpena. Eskaeraren aurkezpen formalaren aurretik, proposamenaren buruek Zuzendaritza Batzordeari idatzi bat bidaliko diote beraien helburuaren berri emateko eta, aldi berean, eskatuko dute Zuzendaritza Batzordeak entrega diezazkietela eredu ofizialeko boto paperak eskatzen den beharrezko babesa justifikatzeko. Boto paper horietan, ondo irakurtzeko moduan, jasoko dira bazkidearen izena, bi abizenak eta zenbakia, identitate dokumentua, eskuzko sinadura eta data, eta sinatzen duen bazkidearen identitate dokumentuaren fotokopia erantsiko da.

b.26) Galde-erantzunak.

20. ARTIKULUA

BATZAR NAGUSIEN DEIALDIAK ETA BILERAK

a) Ohiko Batzar Nagusia Zuzendaritza Batzordeak deituko du bilera egin baino hamabost (15) egun natural lehenago. Ez bada Batzarraren deialdia egiten, deialdia egiteko betebeharra izanda, Hauteskunde Batzordeak Batzar horren deialdia egin ahal izango du, estatutu hauetan jasotako deialdia egiteko baldintzak eta quoruma betez.

b) Era berean, Aparteko Batzar Nagusia Zuzendaritza Batzordeak deituko du bilera egin baino hamabost (15) egun natural lehenago. Halaber, Aparteko Batzar Nagusiaren deialdia hauek egin ahal izango dute:

b.1) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak, baldin eta Zuzendaritza Batzordeak behin eta berriz oztopatzen badu Kontrol Ekonomikoak bere eginkizunak gauzatzea edo izaera ekonomikoko irregulartasun handiak detektatzen badira. Bi kasuetan, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak justifikazio txosten bat egin beharko du.

b.2) Hauteskunde Batzordeak, baldin eta Zuzendaritza Batzordeak ez badu Batzarraren deialdia egiten, hori egiteko betebeharra izanda.

b.3) Hauteskunde Batzordeak, estatutuek hori egiteko eskumena ematen dioten kasu guztietan.

b.4) Horrela eskatzen duten bazkideek, baldin eta gutxienez ehuneko bost (% 5) badira, eta arrazoitu egin beharko dute. Eskaeraren aurkezpen formalaren aurretik, deialdiaren buru direnek Hauteskunde Batzordeari idatzi bat bidaliko diote beraien helburuaren berri emateko eta, aldi berean, eskatuko dute Hauteskunde Batzordeak entrega diezazkietela eredu ofizialeko boto paperak eskatzen den beharrezko babesa justifikatzeko. Boto paper horietan,



ondo irakurtzeko moduan, jasoko dira bazkidearen izena, bi abizenak eta zenbakia, identitate dokumentua, eskuzko sinadura eta data, eta sinatzen duen bazkidearen identitate dokumentuaren fotokopia erantsiko da. Hauteskunde Batzordeak baldintzak balioztatu ondoren, Batzar Nagusiaren deialdia egingo da.

c) Deialdi horiek egingo dira Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratutako iragarki baten bidez, gehien zabaltzen den tokiko egunkari batean jarritako iragarki baten bidez gutxienez eta deialdi telematiko bidez. Azkeneko kasuan, mezua jaso izana sinadura elektronikoko bidez bermatuko da. Azken aukera hori ezinezkoa bada, Batzarra osatzen duten bazkideen erroldan ageri den helbidera bidalitako posta ziurtatu bidez egingo da. Bazkide bakoitzarentzako banakako deialdien kasuan, epea kontatuko da haietako azken deialdia bidaltzen denetik aurrera.

Kasu guztietan, deialdian lekua, eguna, ordua eta gai zerrenda zehaztuko dira.

d) Batzar Nagusia egin aurreko bost (5) egin baliodunetan, bazkideek aukera izango dute bidalitako dokumentazioari buruzko zalantzak argitzeko, Club Atlético Osasunako langile kalifikatuek lagunduta, Club Atlético Osasunaren bulegoetan.

e) Batzar Nagusia balioz lehen deialdian eratzeko, bertara joan beharko dute bertaratzeko eskubidea duten bazkide gehienek, hala bertaratuek nola ordeztuek. Batzar Nagusia bigarren deialdian balioz eratuko da, bertaratuen kopurua edozein izanda ere. Deialdi baten eta bestearen artean hogeita hamar (30) minutuko tarte egongo da.

f) Ordezkaritza idatziz egingo da, datu hauek adieraziko dira: izena eta abizenak, bazkidearen zenbakia eta NANA, hala ordeztutako pertsonarena nola ordezkariarena, baita bien sinadura originala ere. Batzarreko kideek ezingo dute batzarkide bat (1) baino gehiagoren ordezkaria izan. Batzarkide bat ordezkaritza bat (1) baino gehiagorekin aurkeztuko balitz Batzarrean, ordezkaritza horiek eman gabetzat joko lirateke.

g) Zuzendaritza Batzordeko kideek ezingo dute Batzarreko kideen ordezkariak izan.

h) Batzar Nagusiaren burua Zuzendaritza Batzordeko presidentea edo bere ordezkaria izango da, eta Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek lagunduko diote.

i) Batzar Nagusiak egun baliogabeetan egingo dira.

j) Indarrean dagoen araudiak Batzar Nagusiak aurrez aurre egitea galarazten badu, horiek era telematikoan egin ahal izango dira, betiere Batzarreko kideen identitatea eta ordezkaritza egiazta badaiteke, baita botoen zenbaketa ere.



21. ARTIKULUA**BATZAR NAGUSIEN ERABAKI HARTZEAK**

- a) Presidenteak deliberamenduak bideratu eta hitza hartzeko txandak banatuko ditu, eta, gaia behar adina eztabaidatuta dagoela irizten dionean, bozketara eramango du.
- b) Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, bertaratuek edo ordeztuek emandako botoak zenbatuta, eta presidenteak kalitateko botoa izango du.
- c) Ondasun higiezinak besterentzeko, zor tituluak jaulkitzeko, estatutuak aldatzeko eta dirua maileguan hartzeko baimena emateko erabakiak bertaratuek edo ordezkariak emandako botoen bi hereneko gehiengoarekin hartuko dira.
- d) Club Atlético Osasuna desagiteko, bat egiteko, xurgatzeko edo transformatzeko erabakiak bertaratuek edo ordezkariak emandako botoen hiru laurdenen gehiengoarekin hartuko dira. Batzar Nagusiak baimena emanaz gero, erabaki hau Club Atlético Osasunako bazkide hautesle guztien hiru laurdenek berretsi beharko dute, erreferendumean.
- e) Botazioak boto ontzietan batzarkideei emandako boto paperak sartuta egingo dira. Boto paperak ausaz hautatutako Batzarreko hiru (3) kideak zenbatuko dituzte.
- f) Erabakiak hartzeko baliozkoa izango da, halaber, ikuska daitekeen aurrez aurreko botazio sistema elektronikoa erabiltzea.

2. KAPITULUA**HAUTESKUNDE BATZORDEA****22. ARTIKULUA****DEFINIZIOA ETA OSAERA**

Hauteskunde Batzordea arduratuko da hala presidentea eta Zuzendaritza Batzordea nola Batzar Nagusiko kideak hautatzeko hauteskunde prozesuak prestatzeaz, tramitatzeaz eta garatzeaz, baita Club Atlético Osasunako gobernu organoen beste edozein hauteskunde prozesu prestatzeaz, tramitatzeaz eta garatzeaz ere.

Hauteskunde Batzordea bost (5) titularrek eta beste bost (5) ordezkok osatuko dute.

Hauteskunde Batzordeko kidearen kargua ezingo da ordaindu.



Hauteskunde Batzordeko kideen artetik hautatuko dituzte presidente eta idazkari lanak egingo dituztenak.

Hauteskunde Batzordearen erabaki guztiak gehiengo soil bidez hartuko dira.

23. ARTIKULUA

HAUTESKUNDE BATZORDEKO KIDEEEN HAUTAKETA

- a) Hauteskunde Batzordean kide izateko hauteskundeak lau (4) urtean behin deituko ditu Zuzendaritza Batzordeak.
- b) Zuzendaritza Batzordeak argitara emango ditu hauteskunde prozesuko egutegia eta pausoak, eta kontuan izango dira estatutu hauetan ezarritako baldintzak eta epeak.
- c) Hauteskundeetarako ezarritako data baino hilabete bat (1) lehenago, Club Atlético Osasunak zerrenda bat osatuko du hauta daitezkeen eta gutxienez etenik gabeko hiru (3) urteko antzinatasuna duten bazkideekin. Halaber, bazkide horien sarrera data, izena eta bi abizenak, bazkidearen zenbakia eta NAN zenbakia adieraziko dira.
- d) Zerrenda hori izango da Club Atlético Osasunaren behin-behineko hauteskunde errolda, eta lau (4) egun baliodunetan jendaurrean egongo da bere egoitzan. Epe horretan zehar, bazkideek beren datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzte eta idatziz aurkeztu ahal izango dizkiote Zuzendaritza Batzordeari egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak. Batzorde horrek erreklamazio horiek ebatziko ditu eta behin betiko hauteskunde errolda onartuko du bi (2) egun balioduneko epean, hauteskunde erroldaren jendaurreko epea amaitu ondorenetik kontaktzen hasita, Bazkidearen Defentsarako Organoari entzunaldia egin ostean. Zuzendaritza Batzordearen amaierako ebazpenak barneko bide asoziatiboa agortuko du.
- e) Hauta daitezkeen bazkide gisa baztertuko dira hauek: Zuzendaritza Batzordeko kideak, Club Atlético Osasunako langileak eta azken hauteskundeetan Hauteskunde Batzordeko kide izateko hautatu diren bazkideak, beren kargutik kendu badituzte.
- f) Gainera, hautagaitza aurkezteko baldintza hauek bete beharko dira:
 - f.1.) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko harremanik edo partaidetzarik negoziotan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan, Club Atlético Osasunako Zuzendaritza Batzordeko kideekin eta Zuzendaritzako langileekin.
 - f.2.) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko lan harremanik edo partaidetzarik negoziotan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan Club Atlético Osasunarekin, ezta horrelako-



rik eduki izana ere interesduna organoan sartu baino urtebete lehenago.

Harremana bat-batean etorri bada, ukitzen dion kideak organoko gainerako kideei berehala eman beharko die horren berri eta dimisioa aurkeztu beharko die, eta libre dagoen lehenengo ordezkioak ordeztuko du.

g) Hauteskunde Batzordeko kide izateko asmoa duten bazkideek hautaketarako ezarritako data baino bi (2) egun balioudun lehenagora arte aurkeztuko dute beraien hautagaitza. Hautagaitza hautagaiak aurkeztu eta sinatuko du. Hautagaitza hori era hauetara aurkeztu ahal izango da:

- Aurrez aurre Club Atlético Osasunaren bulegoetan, NANA aurkeztuta eta inprimaki ofizial sinatua entregatuz.

- Deialdian adierazitako helbidera bidaliz, posta elektronikoaren bidez, inprimaki ofizial sinatua eta NANaren kopia bat.

Bi kasuetan, Club Atlético Osasunaren hartu agiri bat jasoko du. Hautagaitzaren aurkezpen eguna egiaztatzeko balioko du hartu agiri horrek. Dokumenturen bat falta bada edo zuzenketa edo aldaketaren bat egin behar bada, bazkideari horren berri emango zaio jakinarazpena jaso duela egiaztatzeko eran.

h) Hautaketa baino egun bat lehenago Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da deialdiko bazkide hautagarri guztien zerrenda.

i) Deialdian adierazten den egunean, Batzar Nagusira bertaratutako edo ordeztutako Batzarreko kide bakoitzak (1) hauta daitezkeen hautagaitzetako bi (2) botatuko ditu, eta gehien botatzen diren bostak (5) Hauteskunde Batzordeko kide titular bihurtuko dira eta hurrengo bostak (5) ordezkio bihurtuko dira. Berdinketaren bat gertatzen bada, Club Atlético Osasunaren antzinatasun handiena duena nagusituko da.

j) Prozesua amaitu ondoren, hautatu diren Hauteskunde Batzordeko kideen zerrenda, baita ordezkioa ere, bazkideek ikusi ahal izango dute Club Atlético Osasunaren webgunean.

k) Ez badira aurkezten behar beste hautagaitza edo hautatutako kideen kopurua ezarritako gutxienekotik beherakoa bada, gobernu organo hori bete gabekotzat joko da; beraz, beste hauteskunde prozesu baten deialdia hasiko da, eta arau berdinek arautuko dute.



24. ARTIKULUA**HAUTESKUNDE BATZORDEAREN AGINTALDIAREN IRAUPENA**

a) Hauteskunde Batzordeko kideen agintaldiak lau (4) urte iraungo du. Iraupen hori Hauteskunde Batzorde berri bat osatu arte luzatuko da, eta berriz hautatu ahal izango dira epealdi berdinetarako.

b) Hauteskunde Batzordeko kideek arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

b.1) Ezgaitasunagatik edo heriotzagatik.

b.2) Bazkide izaera galtzeagatik.

b.3) Eginkizunak behin eta berriz ez betetzeagatik edo uzteagatik.

b.4) Aparteko Batzar Nagusiak hala erabakitzeagatik.

b.5) Zuzendaritza Batzordeko kide bihurtzeagatik.

b.6) Hautagaitza aurkezteko behar diren baldintzetako baten bat ez betetzeagatik.

c) Hauteskunde Batzordeko kideek dimititu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dioten uko egite baten bidez.

Kargu uztea edo dimisioa jakinarazi ondoren, Hauteskunde Batzordeko kide titular bihurtuko da lortu-tako botoen kopuru handienak ezarritako ordezkapen ordenaren arabera hurrengo hautagaitza, eta berdinketa dagoenean, Club Atlético Osasunako sarrera dataren antzinatasuna hartuko da kontuan. Plazak hutsik badaude eta ordezkoez ezin badituzte bete, horiek Zuzendaritza Batzordeak bete ahal izango ditu edo Zuzendaritza Batzordeak izendatzen dituztenek, eta egiten den lehenengo Aparteko Batzar Nagusiak berretsi beharko ditu.

25. ARTIKULUA**HAUTESKUNDE BATZORDEAREN EGINKIZUNAK**

Hauek dira Hauteskunde Batzordearen eginkizunak:

a) Club Atlético Osasunaren gobernu organo guztien hauteskunde prozesuak abiaraztea, estatutuetan horrela adierazitako organoetan.



- b) Hauteskunde errolda onartzea eta argitaratzea.
- c) Botatzeko eskubidea dutenen erroldari buruzko bazkideen behin-behineko erreklamazioak ezagutzea eta ebaztea.
- d) Hautagaiak onartzea eta izendatzea.
- e) Balioz aurkezten diren inpugnazioak ebaztea, hala hautagaitzei dagozkienak nola hauteskunde prozesuan zehar sor daitezkeenak.
- f) Hauteskundeak egiteari eta bertako emaitzari zuzenean eragiten dion edozein gairi buruz erabakitzea.
- g) Formatu egokian aurkeztea hala hautagaitzak osatzeko boto paperak nola hauteskunde egunean botatzeko boto paperak.
- h) Club Atlético Osasunaren zuzendaritza bere gain hartzea, Zuzendaritza Batzordearen dimisioagatik, irekitako hauteskunde prozesu batean zehar, Zuzendaritza Batzorde berria bere jabe egin arte edo Kudeaketa Batzorde bat izendatu arte, Club Atlético Osasunaren funtzionamendu normala mantentzeko eta ez du kontratatzeko eskumenik izango.
- i) Club Atlético Osasunaren Batzar Nagusiaren deialdia egitea horrela ezarrita dagoen kasuetan.
- j) Bere kideetako baten bat Kudeaketa Batzordeko kide izendatzen bada.

Hauteskunde Batzordeko erabakiak betearazleak izango dira eta horien aurka aurkezten diren behin-behineko erreklamazioek ez dute etengo adostutakoaren efikazia.

3. KAPITULUA

BAZKIDEAREN DEFENTSARAKO ORGANOAK

26. ARTIKULUA

DEFINIZIOA ETA OSAERA

Bazkidearen Defentsarako Organoak du bazkideen eskubideak zaintzeko ardura. Batzar Nagusiak izendatuko du, aparteko bileran, hori eskatzen duten bazkideen artetik.

Bazkidearen Defentsarako Organoa gehienez hiru (3) kide titularrek eta hiru (3) ordezkok osatuko dute.

Kargu hori ez da ordainduko.



Bazkidearen Defentsarako Organoaren kideen artetik hautatuko dituzte presidente eta idazkari lanak egingo dituztenak.

Bazkidearen Defentsarako Organoaren erabaki guztiak gehiengo soilez hartuko dira.

27. ARTIKULUA

BAZKIDEAREN DEFENTSARAKO ORGANOAREN KIDEEN HAUTAKETA

- a) Bazkidearen Defentsarako Organoan kide izateko hauteskundeak lau (4) urtean behin deituko ditu Hauteskunde Batzordeak.
- b) Hauteskunde Batzordeak argitara emango ditu hauteskunde prozesuko egutegia eta pausoak, eta kontuan izango dira estatutu hauetan ezarritako baldintzak eta epeak.
- c) Hauteskundeetarako ezarritako data baino hilabete bat (1) lehenago, Club Atlético Osasunak zerrenda bat osatuko du hauta daitezkeen eta gutxienez etenik gabeko hiru (3) urteko antzinatasuna duten bazkideekin. Halaber, bazkide horien sarrera data, izena eta bi abizenak, bazkidearen zenbakia eta NAN zenbakia adieraziko dira.
- d) Zerrenda hori izango da Club Atlético Osasunaren behin-behineko hauteskunde errolda, eta lau (4) egun baliodunetan jendaurrean egongo da bere egoitzan. Epe horretan zehar, bazkideek beren datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzte eta idatziz aurkeztu ahal izango dizkiote Hauteskunde Batzordeari egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak. Batzordeak erreklamazio horiek ebatziko ditu eta behin betiko hauteskunde errolda onartuko du bi (2) egun balioduneko epean, hauteskunde erroldaren jendaurreko epea amaitu ondoren kontatzen hasita. Hauteskunde Batzordearen amaierako ebazpenak barneko bide asoziati-boa agortuko du.
- e) Hauta daitezkeen bazkide gisa baztertuko dira hauek: Zuzendaritza Batzordeko kideak, Club Atlético Osasunaren langileak eta azken hauteskundeetan Bazkidearen Defentsarako Organoko kide izateko hautatu diren bazkideak, beren kargutik kendu badituzte. Halaber, baztertuko dira Zuzendaritza Batzordeko kideen batekin senidetasuna duten bazkide guztiak, zuzeneko lerroko senidetasun mailan mugarik gabe edo alboko lerroko laugarren mailara arte.
- f) Gainera, hautagaitza aurkezteko baldintza hauek bete beharko dira:
 - f.1.) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko harremanik edo partaidetzarik negoziotetan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan, Club Atlético Osasunako Zuzendaritza Batzor-



deko kideekin eta Zuzendaritzako langileekin.

f.2) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko lan harremanik edo partaidetzarik negozioetan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan Club Atlético Osasunarekin, ezta horrelakorik eduki izana ere interesduna organoan sartu baino urtebete lehenago.

Harremana bat-batean etorri bada, ukitzen dion kideak organoko gainerako kideei berehala eman beharko die horren berri eta dimisioa aurkeztu beharko die, eta libre dagoen lehenengo ordezkoei ordeztuko du.

g) Bazkidearen Defentsarako Organoko kide izateko asmoa duten bazkideek hautaketarako ezarritako data baino bi (2) egun balioudun lehenagora arte aurkeztuko dute beraien hautagaitza. Hautagaitza hautagaiak aurkeztu eta sinatuko du. Hautagaitza hori era hauetara aurkeztu ahal izango da:

- Aurrez aurre Club Atlético Osasunaren bulegoetan, NANA aurkeztuta eta inprimaki ofizial sinatua entregatuz.

- Deialdian adierazitako helbidera bidaliz, posta elektronikoaren bidez, inprimaki ofizial sinatua eta NANaren kopia bat.

Bi kasuetan, Club Atlético Osasunaren hartu agiri bat jasoko du. Hautagaitzaren aurkezpen eguna egiaztatzeko balioko du hartu agiri horrek. Dokumenturen bat falta bada edo zuzenketa edo aldaketaren bat egin behar bada, bazkideari horren berri emango zaio jakinarazpena jaso duela egiaztatzeko eran.

h) Hautaketa baino egun bat lehenago Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da deialdiko bazkide hautagarri guztien zerrenda.

i) Deialdian adierazten den egunean, Batzar Nagusira bertaratutako edo ordeztutako Batzarreko kide bakoitzak (1) hauta daitezkeen hautagaitzetako bi (2) botatuko ditu, eta gehien botatzen diren hirurak (3) Bazkidearen Defentsarako Organoko kide titular bihurtuko dira eta hurrengo hirurak (3) ordezeko bihurtuko dira. Berdinketaren bat gertatzen bada, Club Atlético Osasunaren antzintasun handiena duena nagusituko da.

j) Prozesua amaitu ondoren, hautatu diren Bazkidearen Defentsarako Organoko kideen zerrenda, baita ordezkoei ere, bazkideek ikusi ahal izango dute Club Atlético Osasunaren webgunean.

k) Ez badira aurkezten behar beste hautagaitza edo hautatutako kideen kopurua ezarritako gutxienekotik beherakoa bada, gobernu organo hori bete gabekotzat joko da; beraz, beste hauteskunde prozesu baten deialdia hasiko da, eta arau berdinek arautuko dute.



28. ARTIKULUA**BAZKIDEAREN DEFENTSARAKO ORGANOAREN KIDEEEN AGINTALDIAREN IRAUPENA.**

a) Bazkidearen Defentsarako Organoko kideen agintaldiak lau (4) urte iraungo du. Iraupen hori Bazkidearen Defentsarako Organo berri bat osatu arte luzatuko da, eta berriz hautatu ahal izango dira epealdi berdinetarako.

b) Bazkidearen Defentsarako Organoko kideek arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

b.1) Ezgaitasunagatik edo heriotzagatik.

b.2) Bazkide izaera galtzeagatik.

b.3) Eginkizunak behin eta berriz ez betetzeagatik edo uzteagatik.

b.4) Aparteko Batzar Nagusiak hala erabakitzeagatik.

b.5) Zuzendaritza Batzordeko kide bihurtzeagatik.

b.6) Hautagaitza aurkezteko behar diren baldintzetako baten bat ez betetzeagatik.

c) Bazkidearen Defentsarako Batzordeko kideek dimititu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dioten uko egite baten bidez.

Kargu uztea edo dimisioa jakinarazi ondoren, Bazkidearen Defentsarako Organoko kide titular bihurtuko da lortutako botoen kopuru handienak ezarritako ordezkapen ordenaren arabera hurrengo hautagaitza, eta berdinketa dagoenean, Club Atlético Osasunako sarrera dataren antzinasuna hartuko da kontuan.

29. ARTIKULUA**BAZKIDEAREN DEFENTSARAKO ORGANOAREN EGINKIZUNAK**

Hauek dira Bazkidearen Defentsarako Organoaren eginkizunak:

a) Bazkideen eskubideak defendatzea eta babestea.

b) Bazkideek planteatutako erreklamazio, gomendio eta iradokizun guztiak ezagutzea, aztertzea eta aurkezte Zuzendaritza Batzordeari.



- c) Bere ekimenez, egokitzen jotzen dituen iradokizunak egitea Zuzendaritza Batzordeari.
- d) Bazkideen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko gatazketan bitartekari lana egitea.
- e) Defentsari eginkizuna gauzatzea Club Atlético Osasunaren Diziiplina Organoan.
- f) Izendatzen bada, Kudeaketa Batzordeko kide izatea.
- g) Idatzizko bi txosten egitea: bata, kirol denboraldiaren lehen erdiari buruzkoa eta, bestea, denboraldiaren amaie rari buruzkoa, eta dagozkien jardueren memoria jasoko da. Txosten hori Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da.
- h) Batzar Nagusiari aurkeztea jardueraren laburpen labur bat, informazio hau izango duena:
 - h.1) Bazkideen kopurua, eta Bazkidearen Defentsarako Organoak jasotako gorabeheren kopurua.
 - h.2) Horiak ebazteko erabilitako batez besteko epea.
 - h.3) Gorabeherak ebaztean detektatutako desberdintasun edo anomalia larriak.
 - h.4) Club Atlético Osasunak ebatzi ez dituen espediente edo gorabehera larriak.
- i) Kanpoan geldituko dira arlo teknikoari eta kirol arloari, lan arloari edo agintari judizialaren edo Administrazio Publikoaren mende dauden gaiak dagokienez, bazkideen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko erreklamazio edo desadostasun guztiak.

30. ARTIKULUA

ERREKLAMAZIOAK TRAMITATZEKO PROZEDURA

Erreklamazio guztiak idatziz aurkeztuko dira Club Atlético Osasunaren bulegoetan, eta erreklamatzaileraren datu pertsonalak adieraziko dira (izena, bi abizenak eta NANa), baita bere bazkide zenbakia ere. Erreklamazioak horretarako prestatuko diren baliabide digitalen bidez aurkeztu ahal izango dira, baita “defensordelsocio@osasuna.es” helbide elektronikora idatzita ere. Bazkideen erreklamazioak Bazkidearen Defentsarako Organoko kideek tramitatuko dituzte zuzenean, eta Zuzendaritza Batzordeari txostena aurkeztuko diote hamar (10) egun balioduneko epean, erreklamazioa aurkeztu zenetik kontatzen hasita. Erreklamazioak idatziz erantzungo dira hamar (10) egun baliodunetik beherako epean, Zuzendaritza Batzordeari erreklamazio hori aurkeztu zitzaion egunetik kontatzen hasita.



Bazkidearen defentsariak behar diren ikerketak egiteko erabateko autonomia izango du aurkeztutako erreklamo-
zioari dagokionez eta Zuzendaritza Batzordeak hartzen dituen erabakiak betetzeaz arduratuko da.

4. KAPITULUA **PRESIDENTEA**

1. ATALA **PRESIDENTEAREN HAUTAKETA**

31. ARTIKULUA **HAUTAGAITZA ETA PERTSONA HAUTAGARRIAK.**

Club Atlético Osasunaren presidente kargua boto eskubidea duten bazkide guztien sufragio libre, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez hautatuko da.

Presidente izan nahi duen hautagaiak bere hautagaitza jakitera emango dio bere Zuzendaritza Batzordekoa izango den lantaldeari.

Presidente hautatzeko, bazkide hautagarria izan beharko da, Club Atlético Osasunako bazkide gisa gutxienez etenik gabeko zortzi (8) urteko antzintasuna duela egiaztatu beharko da, zuzendaritzako karguetan jarduteko ezgaitzen duen zigorririk ez da izan behar, ezingo da izan presidente kargurik beste futbol talde batzuetako klubetan, estatutu hauetan ezartzen diren baldintzetan eta zenbatekoarekin banku abala aurkeztuko da dagokion garaian eta Nafarroan izan beharko da bizilekua.

Era berean, zuzendaritzako kide hautatzeko, bazkide hautagarria izan beharko da, Club Atlético Osasunako bazkide gisa gutxienez etenik gabeko lau (4) urteko antzintasuna duela egiaztatu beharko da, zuzendaritzako karguetan jarduteko ezgaitzen duen zigorririk ez da izan behar, eta estatutu hauetan ezartzen diren baldintzetan eta zenbatekoarekin banku abala aurkeztuko da dagokion garaian.

32. ARTIKULUA **ONDARE BERMEAK**

- a) Zuzendaritza Batzordeko kideak beraiek kudeatzen duten epealdian sortzen diren emaitza ekonomiko negatiboen erantzuleak izango dira.



b) Beraz, ezinbesteko baldintza izango da hautagaitza baliozkoa izateko, Espainiako Bankuaren entitateen erregistroan erregistratutako edozein bankuren edo aurrezki kutxaren banku abal mankomunatua aurkezte, eta Hauteskunde Batzordeak aurkeztuko duen ereduarekin eta moduarekin bat egingo du.

c) Abal hori hautagaitzan inskribatutako kideei bakarrik eman ahal izango die erakunde finantzarioak.

d) Hautagaitza bakoitzak aurkeztu beharreko abalaren balioak Club Atlético Osasunaren Batzar Nagusiak onartutako gastuen azken aurrekontuen ehuneko hamarreko (% 10) zenbatekoa bermatuko du. Hautagaitza hori aurkezterako unean indarrean dauden legeek, erregelamenduek edo araudiek ezarritakoa baino zenbateko handiagoa eskatzen badute, azken hori eskatuko zaio hautagaitza bakoitzari bere proposamena baliozkotzat jotzeko. Hauteskunde Batzordeak hautagaitza bakoitzari emango dion dokumentu ofizialean, hautagaitzek abalatu beharreko zenbateko osoa adieraziko da.

e) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak ziurtatuko du aurkeztutako abala eta bere bermeak indarrean dauden estatutuekin bat datozela. Horretarako, Hauteskunde Batzordeak hautagaitza bakoitzari dokumentu bat emango dio, eta, bertan, abal eskatzaileek baimena emango diote Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari inplikaturako banku erakundera jo ahal izateko batzordeko kideak, aurkeztutako abalari eta bere baliozkotasunari buruz egokitutako jotzen dituzten kontsultak egin ditzaten. Era berean, dokumentu hauek ere erantsiko dira:

e.1) Aurkezten den hautagaitzako kide guztien zinpeko adierazpena sinatua non adieraziko den ez dagoela hautagaitza horri abala ematen dion edo aurkako abala duen hirugarrenenik, eta, ondorioz, hautagaitza horrek ez duela inolako zorrik ezta erantzukizunik ere etorkizuneari hirugarrenekin, Club Atlético Osasunari zor edo betebeharren bat ekar diezaiokeenik.

e.2) Banku erakundearen ziurtagiria non adieraziko den kide horiek direla abala emateko bermatzaile bakarrak, Zuzendaritza Batzordeko kide izateko hautagai horiek duten ondare pertsonalaren berme bakar eta eskusiboaren bidez.

f) Hauteskundeetan aurkezteko eskatutako abala aurkeztu ondoren eta abala aurkezteko baldintzak betez gero, Club Atlético Osasunak ekonomikoki lagunduko ditu irabazle izan ez diren hautagaitzak. Hala, abal hori emategatiko justifikatutako gastuak ordainduko ditu.

g) Presidenteak edo presidentearen lehen agintalditik presidentearekin batera jardun duen eta lehen hautagaitza horri harekin mankomunatuta abala eman zion Zuzendaritza Batzordeko kideren batek osatzen badu hautagaitza, abal hori ez da beharrezkoa izango, betiere Club Atlético Osasunak bere agintaldiko ekitaldi guztietan emaitza ekonomiko positibo metatua izan badu.

h) Hauteskunde Batzordeak hautagaitza bakoitzaren baliozkotasuna edo baliozkotasunik eza adieraziko



du, Kontrol Batzordeak egindako eta ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez adierazten duen ondare bermeen txostena jaso ondoren.

33. ARTIKULUA

PRESIDENTE IZATEKO HAUTESKUNDEEN DEIALDIA

Club Atlético Osasunaren presidente izateko hauteskundeen deialdia Zuzendaritza Batzordeak edo Hauteskunde Batzordeak eskatuta hasiko da, kasu hauetako edozeinetan.

a) Zuzendaritza Batzordea.

a.1) Ezarritako adostasunagatik.

b) Hauteskunde Batzordea.

b.1) Zuzendaritza Batzordearen agintaldia amaitzeagatik.

b.2) Zuzendaritza Batzordeak dimisioa emateagatik.

b.3) Zuzendaritza Batzordeaz jabe egin gabe amaitu den hauteskunde prozesu baten ondoren.

34. ARTIKULUA

HAUTESKUNDE PROZESUA

a) Hauteskunde egutegia

Hauteskunde Batzordeak argitara emango ditu hauteskunde prozesuko egutegia eta pausoak, eta kontuan izango dira estatutu hauetan ezarritako baldintzak eta epeak.

b) Hauteskunde errolda.

Club Atlético Osasunaren presidentearen hauteskundeen deialdia eginda, Hauteskunde Batzordeak hauteskunde deialdiko egunari dagokion behin-behineko hauteskunde errolda argitara emango du eta, bertan, boto eskubidea duten bazkide guztiak egongo dira. Halaber, bazkide horien guztien sarrera data, izena eta bi abizenak, bazkide zenbakia eta NAN zenbakia adieraziko dira.



Behin-behineko hauteskunde errolda Club Atlético Osasunaren egoitzan lau (4) egun balioduneko epean egongo da ikusgai, eta bazkideek epe horretan beraien datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzte eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Hauteskunde Batzordeari.

Hauteskunde Batzordeak bi (2) egun balioduneko epean erantzungo ditu aurkeztutako alegazioak eta behin betiko hauteskunde errolda argitaratuko du. Ematen den, alegazio horiek ebazten dituen, ebazpenaren aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu, eta barneko bide asoziatiboa agortuko da.

c) Presidente izateko hautagaitzak.

Club Atlético Osasunaren presidente izateko hautagaitzak hamar (10) egun balioduneko epean aurkeztuko dira, behin betiko hauteskunde errolda argitaratzen denetik, Club Atlético Osasunaren idazkaritzan, bulegoko ordutegian eta Hauteskunde Batzordeari zuzenduko zaizkio.

Eskaerek datu eta dokumentu hauek izan beharko dituzte:

Presidente izan nahi duen hautagaiaren izena eta abizenak, baita sinadura bidezko bere onarpena ere, bazkide txartelaren eta NANaren alde bietako fotokopia eta bizilekua Nafarroan duela adierazten duen ziurtagiria. Zuzendaritza karguak hartuko dituzten hautagaien izena eta abizenak, bazkidearen zenbakiarekin eta sinadura bidezko bere onarpenarekin.

Hautagaitza osatzeko nahitaezko banku abala, baita abalaren legitimotasuna baliozkotzeko Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen baimenak ere.

d) Hautagaitzak izendatzea.

Hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta hiru (3) egun balioduneko epean, Hauteskunde Batzordeak aurkeztutako hautagaitzen baliozkotasunari edo baliozkotasun ezari buruzko amaierako txostena egingo du.

Txostena egin ondoren, Hauteskunde Batzordeak, aldi berean, baliozko hautagaitzak izendatuko ditu.

Baliozko hautagaitza bat (1) aurkeztuko balitz edo aurkeztutako hautagaitza bakarra baliozkotuko balitz, hautagaia presidente izendatuko du Hauteskunde Batzordeak. Halaber, hautagaitzako kideak hautatutzat izendatuko dira.

Ez bada hautagaitzarik aurkezten edo aurkeztutako ezein ez bada baliozkotzat jotzen, Hauteskunde Batzordeak beste hauteskunde batzuen deialdia egingo du hilabete bateko (1) gehieneko epean, eta arau berdinak izango dituzte.



Hautagaitzaren bat ez-baliozkotzat jotzen bada, Hauteskunde Batzordearen erabakiaren aurka alegazioak aurkeztu ahal izango dira bi (2) egun balioduneko epean, erabaki hori argitaratzen denetik hasita, eta Hauteskunde Batzordeak beste bi (2) egun baliodun izango ditu ebazteko. Aurkeztutako alegazioak ebazteko Hauteskunde Batzordeak azkenik ematen duen ebazpenaren aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu eta barneko bide asoziatiboa agortuko da.

e) Hauteskunde kanpaina.

Baliozkotzat hautagaitza bat (1) baino gehiago jotzen badira, hauteskunde kanpaina hasiko da eta ez da izango hamar (10) egun baliodunetik gorakoa, hautagaitzak izendatzeko aurreikusitako datatik kontatzen hasita. Zuzendaritza Batzordeko kideren bat Club Atlético Osasunaren presidentetzarako baliozkotutako hautagaitza bateko kidea bada, Hauteskunde Batzordeak bere kargutik kenduko du automatikoki, hautagaitzak baliozkotzat jotzeko egun berean. Berrautaketara aurkeztu ez diren Zuzendaritza Batzordeko kideak, eta betiere presidenteak dimititu ez badu, jardunekoak izango dira hautagaitzaren bat hautatu arte, presidentearen mende ordena honetan: Presidentea, presidenteordea edo presidenteordeak (egongo balira), eta ordena korrelatiboaren arabera, idazkaria, diruzaina edo urte gehien dituen kidea.

Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak berrautaketara aurkeztuko balira eta, beraz, karguak uzten badituzte, Hauteskunde Batzordeak bere gain hartuko du Club Atlético Osasunaren zuzendaritza, Zuzendaritza Batzorde berria edo Kudeaketa Batzorde bat izendatu arte, Club Atlético Osasunaren ohiko funtzionamendua mantentzeko eta ez du izango kontratatzeko eskumenik.

f) Botazioak eta zenbaketa.

Hauteskunde deialdian adierazitako lekuan, egunean eta ordutegian botatuko da.

Botatzeko eguna egun baliogabe bat izango da.

Boto paperak hauteskunde mahaietan egongo dira, eta hautagaitza guztiek formatu, paper eta kolore berdinak izango dituzte.

Hautesleak NANA erakutsita egiaztatuko dira.

Botoa emateko aurreikusitako denbora amaitu ondoren, hauteskunde mahaia botoak zenbatzen hasiko da eta zenbaketa amaitu ondoren, datu hauek izango dituen ekitaldiko akta idatziko du:

Hauteskunde mahaiko boto eskubidedun bazkideak, guztira.



Botatu duten bazkideak, guztira.

Hautagaitza bakoitzak lortutako botoak, guztira.

Boto zuriak, guztira.

Boto baliogabeak, guztira.

Boto baliogabeak izango dira eredu ofizialarekin bat egin ez duten boto papera edo gutun azala duten botoak, baita aipamenen bat edo zuzenketak dituztenak ere.

Gutun azalean hautagaitza beraren boto paper bat baino gehiago badaude, boto bakarra izango da baliioduna.

Gutun azalean hautagaitza desberdinen boto paperak badaude edo zuriak badaude, botoa baliogabea izango da.

Boto zuria izango da gutun azalean ez badago boto paperik edo zurian boto paper bat edo gehiago badaude.

Aurreko guztia alde batera utzi gabe, salbuespenez eta betiere baldintzek hala aholkatzen badute, Hauteskunde Batzordeak botazioa telematikoki egin ahal izatea ezarri ahal izango du, betiere identitatea eta bazkidea hauteslea dela ziurtatu badaiteke eta, halaber, telematikoki emandako sufragio aktiboaren izaera pertsonala, besterenezina, librea eta sekretua bermatzen bada.

g) **Presidente hautatua izendatzea.**

Hauteskunde mahai bakoitzeko eta posta bidezko botoak zenbatu ondoren, Hauteskunde Batzordeak Club Atlético Osasunaren presidente izendatuko du boto baliiodun gehien lortu dituen hautagaia, eta, era berean, hautagaitzako kideak ere izendatuko ditu.

Berdinketa dagoenean, hurrengo egun baliogabeen bigarren botazioa edo hurrengo botazioak egingo dira, beren artean gutxienez berrogeita zortzi (48) orduko tartea utziz, eta lehenengo hauteskunderako baldintza berdinekin, hautagaitzetako baten batek boto baliiodunen gehiengoa lortu arte. Hauteskunde Batzordeak presidente izendatuko du hautagaitza honetako hautagaia, eta hautagaitzako kideak ere izendatuko ditu.

Legeak eskatzen badu abala kargua hartu baino lehen aurkeztea, hautatutako Zuzendaritza Batzorde berriak hamar (10) egun baliioduneko epean, abala formalizatu beharko du indarrean dagoen araudiak eskatzen duen eran eta Liga Nacional del Fútbol Profesional (LFP) erakundeak baimenduta. Bestela, ezingo da Zuzendaritza Batzordearen jabe egin eta gobernu organo hori bete gabe geldituko da; beraz, beste hauteskunde prozesu baten deialdia hasiko da, eta arau berdinek arautuko dute.



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA

35. ARTIKULUA

HAUTESKUNDE MAHAIAK

- a) Hauteskunde Batzordeak, Club Atlético Osasunaren presidente izateko hauteskunde deialdia adostu ondoren, hauteskunde mahaiaik eratuko ditu ekitaldi publikoan zozketa bidez, izendatutako notaritzarekin, bazkide hautesleak diren bazkideen artetik.
- b) Hauteskunde mahai bakoitzeko hiru (3) kide eta hiru (3) ordezeko hautatuko dira, ordezkapen ordenarekin.
- c) Hauteskunde mahaiko kide izatea eta hauteskundeetako hautagai izatea edo hautagaitzetako kideren baten senidea izatea, ahaidetasunagatik edo odol ahaidetasunagatik hirugarren mailaraino, bateraezinak izango dira. Halaber, hauteskunde mahaiko kideak izan ahalko dira hautagaitzek izendatutako ahaldunak. Bateraezintasun hori gertatzen bada edo izendatuan uko egitea justifikatzen duen baldintzaren bat gauzatzen bada edo karguan jarduteko ezintasunen bat gertatzen bada edo ez bada agertzen karguaren jabe egiteko, ordezkoei ordeztuko dute hautatu diren ordena berdinean, eta ordezkorik ez badago, Club Atlético Osasunako langileek ordeztuko dute.
- d) Hauteskunde mahaien kopurua Hauteskunde Batzordeak adostuko du, boto eskubidea duten bazkide kopuruaren arabera, gutxienez bat (1) eta gehienez hamar (10) izango dira.
- e) Hauteskunde mahaiko kide izateari uko egitea edo ez agertzea, Hauteskunde Batzordeak justifikatutako arrazoirik gabe, falta astuntzat joko da, eta Diziiplina Organoak dagokion moduan zigortuko du.
- f) Hauteskunde mahaiaik botazioa egin baino ordubete lehenago eratuko dira, eta botazioa adierazitako orduan egingo da.
- g) Botoak emateko, hauteskunde mahaiaik banatutako boto paperak erabiliko dira. Hautesleak hauteskunde erroldaren arabera egokitu zaion mahaian botatuko du, eta hautesleak NANaren bidez egiaztatuko du bere burua.

36. ARTIKULUA

HAUTESKUNDE MAHAIEN OSAERA

Hauteskunde mahai bakoitza hauek guztiek osatuko dute:

- a) Presidente batek, aipatutako mahaian antzinasun handiena duen bazkidea izango da. Antzinasun berdina izanez gero, urte gehien dituen.



b) Mahaiko kide batek.

c) Idazkari batek, aipatutako mahaian antzinasun txikiena duen bazkidea izango da. Antzinasun berdina izanez gero, urte gutxien dituen.

37. ARTIKULUA

HAUTESKUNDE MAHAIEI EGINKIZUNAK

Hauteskunde mahaia eginkizun hauek izango ditu:

- a) Botatzeko ekintzaren buru izatea eta kontrolatzea, boto eskubidea gauzatzeko helburuarekin.
- b) Egiaztatzea hautesleen identitatea, haien hautesle izaera eta hautagaitzek izendatutako ahaldunen akreditazioak.
- c) Kontrolatzea botoa emateko unea eta boto papera era egokian sartzen dela horretarako jarritako boto ontzi itxi batean.
- d) Botoak zenbatzea.
- e) Idazkariak akta idaztea, eta bertan adieraziko dira hautesle kopurua, emandako baliozko botoak, boto baliogabeak, botazioaren emaitza eta gorabeherak edo erreklamazioak, gorabeheraren bat izanez gero, halarik sortzen bada. Akta mahaiko kide guztiek sinatuko dute eta Hauteskunde Batzordeari emango zaio.

38. ARTIKULUA

HAUTAGAITZEN AHALDUNAK

- a) Hautagaitza bakoitzak osatzen diren hauteskunde mahai beste adin nagusiko bazkide izendatu ahal izango ditu. Ahaldun horiek edozein mahaitako botazioa eta zenbaketa aztertu ahal izango dute, erreklamazioak jarri ahal izango dituzte, protestatu ahal izango dute eta ziurtagiriak eskatu ahal izango dizkiete bai hauteskunde mahaiei nola Hauteskunde Batzordeari.
- b) Ahaldunak hauteskunde mahaia ireki baino ordu bat lehenago akreditatu beharko dira.
- c) Ahaldunek dagokien mahaian botatu beharko dute.
- d) Ahaldun egiaztatzea Hauteskunde Batzordeak emango die hautagaitzek hala eskatuta eta Club Atlético



Osasunako boto eskubidedun bazkideak izan behar dute. Horretarako, beraien NANarekin eta bazkide txartelarekin identifikatu beharko dute beraien burua hauteskunde mahaietan. Eskaera hori Hauteskunde Batzordeari eskatuko zaio hauteskundeetarako adierazitako eguna baino gutxienez hiru (3) egun natural lehenago.

e) Ezin izango dute hauteskundeekin loturiko propagandarik eraman.

39. ARTIKULUA

POSTA BIDEZKO BOTOA

Hauteskundeetan kanpoan dauden bazkideen parte hartzea errazteko eta botoa ematera hauteskunde mahaietara joan ezin duten bazkideentzat posta bidezko boto sistema hau ezarriko da.

a) Sistema honen bidez botatu nahi duen bazkideak pertsonalki eskatu beharko du posta bidez botatzeko nahia duela, hala Club Atlético Osasunaren bulegoetara joanda nola Hauteskunde Batzordeari eskatuta, bai posta elektronikoaren bidez bai Club Atlético Osasunak bere eskura jartzen dituen beste baliabide batzuen bidez.

b) Posta bidez botatzeko eskaera epea hauteskunde prozesua hasten den egun berean hasiko da eta botozietarako izendatutako eguna baino zazpi (7) egun balioudun lehenago amaituko da.

c) Hautagaitzak izendatu ondoren eta hauteskunde prozesua ez bada amaitzen, Hauteskunde Batzordeak posta ziurtatu bidez bidaliko dio dokumentazio hori, hau da, hainbat hautagaitzen boto paperak. Horrela nahi duten bazkideek, halaber, pertsonalki jaso ahal izango dute dokumentazio hori guztia Club Atlético Osasunan, epe eta modu berdinean.

d) Bazkideak, boto paperak jaso ondoren, posta bulegora joan beharko du eta gutun azal ziurtatu batean bidali beharko du botoa eman nahi dion hautagaitzaren boto papera, baita NANaren alde bietako fotokopia eta bere sinadura autografoa ere. Pertsona juridikoak badira, IFZren fotokopia, sinatzaileak enpresan duen zigilua eta kargua, NANaren fotokopia eta botoa gauzatzen duen pertsonaren sinadura originala.

e) Hauteskunde Batzordeari bidaliko zaion gutun azalean, atzealdean, gutuna bidaltzen duen bazkidearen izena adieraziko da, eta bat etorriko da gutun azalaren barneko NANaren izenarekin.

f) Boto hau baliozkoa izango da, betiere botazioa baino hiru (3) egun balioudun lehenago aurkezten bada edozein posta bulegotan, eta dokumentu ziurtatuaren erregistro data izango da botoaren baliozkotasuna egiaztatzeko erabiliko den erreferentzia data.

g) Hauteskunde Batzordeak botazio egunera arte gordeko ditu gutun azalak hauteskundeak hasi arte.



Orduan, hauteskunde mahaian entregatuko ditu eta horretarako jarritako boto ontzian sartuko ditu. Botoa posta bidez ematen dutenen kasuan, aurrez aurre ere ematen badute, bazkide horien posta bidezko botoa ez emandakotzat joko da.

h) Hauteskundeak amaitu ondoren, lehenik, posta bidezko botoak dituen boto ontzia irekiko da, eta aurrez nahitaez erantsitako Nortasun Agiri Nazionalaren sinadurarekin bat egiten duten gutun azalaren kanpo aldeko hauteslearen datuak eta sinadura egiaztatuko dira, eta kasu horretan boto papera boto ontzian sartuko da berriz, bere gutun azalarekin batera.

2. ATALA

PRESIDENTEAREN EGINKIZUNAK ETA AGINTALDIA

40. ARTIKULUA

EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK

a) Presidenteari dagokio agintarien, epaitegien, antolakundeen edo erakundeen aurrean, izan publikoak izan pribatuak, Club Atlético Osasunaren legezko ordezkaritza.

b) Gainera, presidentearen eskumenak hauek dira:

b.1) Club Atlético Osasunaren gobernu organoek eta administrazioak balioz hartutako erabakiak gauzatzea.

b.2) Batzar Nagusien eta Zuzendaritza Batzordearen bileren buru izatea, eta horietako eztabaidak zuzentzea, baita bertaratzen den batzorde edo ataletako edozein bilera ere.

b.3) Izendapenak ikus-onestea eta Club Atlético Osasunaren sinadura erabiltzea eta delegatzea.

b.4) Zuzendaritza Batzordeen deialdia egitea eta horien buru izatea.

b.5) Zuzendariak izendatzea.

b.6) Horiek kargutik kentzea, betiere kargu uzte horrek Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoaren aldeko botoa badu eta Club Atlético Osasunaren kargu uztearen datatik aurrera erantzukizun ekonomikoetatik libre uzten bada.



b.7) Zuzendaritza Batzordearen eskumen guztiak, hark eskuordetuta.

b.8) Bere kalitate botoarekin, berdinketak ebaztea Zuzendaritza Batzordearen, Batzar Nagusiaren eta, hala badagokio, parte har dezakeen batzordeetako edo ataletako edozein botaziotakoak.

b.9) Club Atlético Osasunaren eskubideak defendatzea.

41. ARTIKULUA

AGINTALDIAREN IRAUPENA

a) Presidentearen agintaldiak lau (4) urte iraungo izango du, eta berrautatu ahal izango da epealdi berdinerako.

b) Agintaldi hori lehenago amaitu ahal izango da arrazoi hauengatik:

b.1) Dimisioagatik.

b.2) Epai irmo bidez aitortutako desgaitzazagatik.

b.3) Heriotzazagatik edo ezintasunagatik.

b.4) Batzar Nagusiak onartutako zentsura mozioagatik.

5. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEA

42. ARTIKULUA

IZENDAPENA

Presidenteak, Hauteskunde Batzordeak presidente izendatu ostean, Zuzendaritza Batzordeko kide gisa izendatu beharko ditu hautagaitzan proposatutako guztiak.

Era berean, Zuzendaritza Batzordearen lehen bileran, presidenteak Zuzendaritza Batzordeko karguak izendatuko ditu, eta hauteskundeetara presidentearekin batera aurkeztu diren kideetatik presidenteorde bat, idazkari bat eta diruzain bat izendatu beharko dira.



Halaber, beste kide batzuk izendatuko dira, eta horiek izendatzeko ezarritako kideen kopurua eta baldintzak errespetatuko dira.

43. ARTIKULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OSAERA

a) Club Atlético Osasunaren Zuzendaritza Batzordea kargu hauek osatuko dute:

- Presidentea.
- Presidenteordea edo, hala badagokio, presidenteordeak.
- Idazkaria.
- Diruzaina.

- Batzordekideak.

Zuzendaritza Batzordeko kideen kopurua ezingo da izan bost (5) kideetik beherakoa ezta hamalau (14) kideetik gorakoa ere. Karguak zenbakituta egongo dira zenbakizko ordena gorakorrean, presidentea ordezteko ez dagoenean edo gaixo dagoenean, presidenteordeak hori ezin duenean egin. Edozein arrazoi dela-eta presidenteordearen, idazkariaren edo diruzainaren kargua behin betiko edo behin-behinean hutsik gelditzen bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek ordeztuko dute zenbakizko ordena beherakorrean.

b) Zuzendaritza Batzordeko kideei ez zaie ordainduko.

c) Zuzendaritza Batzordeko kideak ezingo dira izan Club Atlético Osasunako langileak.

44. ARTIKULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK

Hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a) Batzar Nagusiaren erabakiak betetzea.
- b) Club Atlético Osasunaren ordezkaria izatea presidenteak eskuordetuta.



- c) Estatutuetoako xedapenak betetzea eta betetzeko orduan sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- d) Bazkideak onartzea.
- e) Urteko Kontuen Auditoretza kontratatzea, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak berretsita.
- f) Club Atlético Osasunaren jarduerak planifikatzea eta behar bezala egiteaz arduratzeta.
- g) Langileei, kirolariei, teknikariei eta laguntzaileei aitortutako eskubideak bermatzea.
- h) Kudeaketa ekonomikoa eramatea.
- i) Batzar Nagusiari proposatzea gobernu organoetako edozein kide kargutik ken dadila bere eginkizunak behin eta berriz ez betetzeagatik edo utzikeriagatik.
- j) Egoitza soziala mugitzea beti udalerriaren barnean, eta Batzar Nagusiari kontuak emanaz.
- k) Club Atlético Osasunaren ordena eta diziiplina mantentzea, baita parte hartzen den lehiaketan funtzionamendua ona izan dadila bermatzea ere.
- l) Batzar Nagusien deialdiak egitea, gai zerrenda ezarriz eta bazkideek epean eta forman aurkezten dituzten proposamenak onartuz.
- m) Hiru (3) hilabeteko gehieneko epean, ekitaldi ekonomiko bakoitza ixten denetik kontatuta, formulatzea Club Atlético Osasunaren informazio ekonomikoa, bereziki, ekitaldi ekonomikoaren itxiera (balantzea eta emaitzen kontua), aurrekontua eta memoria, ondoren, Batzar Nagusiari proposatzeko horiek onar ditzan. Aurrez adierazitako informazio guztia Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek sinatuko dute. Kideren baten sinadura falta bada, sinadura falta den dokumentu guztietan adieraziko da hori, eta arrazioa berariaz adieraziko da.
- n) Egokitzeak jotzen diren batzordeak edo lantaldeak sortzea.
- ñ) Club Atlético Osasunaren aktiboaren parte izan zen ondarea berreskuratzearen alde lan egitea.
- o) Egintzak, demandak edo erreklamazioak administrazio bidetik, auzibidetik, federazio bidetik edo arbitraje bidetik ezartzea, Club Atlético Osasunaren interesak defendatzeko beharrezkoak direnean.
- p) Estatutuak, garapen xedapenak eta barneko funtzionamenduko erregelamenduak aldatu eta egokitu



daitezela proposatzea, horiek ondoren Batzar Nagusiak onartu beharko ditu eta irekia izango da masa sozial guztiarentzat.

q) Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak presidenteari eskuordetzea.

r) Club Atlético Osasunari eta bere helburuei dagokienez dagoen beste edozein funtzio edo eskumen, eta betiere ez badira Batzar Nagusiaren edo Club Atlético Osasunaren beste erakunde batzuen eskumena.

45. ARTIKULUA

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN AGINTALDIAREN IRAUPENA

a) Zuzendaritza Batzordearen agintaldiak lau (4) urte iraungo du, eta berrautatu ahal izango da epealdi berdinetarako. Berrautatuak izan nahi duten kideak batera edo bereizita aurkeztu ahal izango dira beste hautagaitza batzuetan.

b) Zuzendaritza Batzordea kargutik kenduko da presidenteak kargua uzten duenean, berak dimititu duelako, epai irmo batek deklaraturako desgaituntzatik edo Batzar Nagusiak onartutako zentsura mozioagatik.

c) Presidentearen ustezko desgaituntzaren edo heriotzaren kasuan, Zuzendaritza Batzordeak agintaldia amaitu arte jarraitu ahal izango du, betiere Batzar Nagusiak onartzen badu jarrai dezala hilabete bateko (1) epean, presidentearen heriotzaren edo desgaitasunaren ondorenetik kontatzen hasita.

46. ARTIKULUA

JARRAIPEN PROZESUA

a) Hauteskunde Batzordeak, Zuzendaritza Batzordeak jarraitzea baimentzen duen kasuetako baten bat ziurtatzen denean (presidentearen desgaitasunagatik edo heriotzagatik), Aparteko Batzar Nagusi baten deialdia egingo du non uneko Zuzendaritza Batzordeko kideek jarraitzea onartuko den ala ez.

b) Batzarraren aurretik, Zuzendaritza Batzordeak presidentea izango den kidearen izena emango du jakitera, baldin eta Batzar Nagusiak berresten badu. Ez badu berresten, beste hauteskunde prozesu bat hasiko da.

c) Ezingo da Zuzendaritza Batzordeko kide berririk sartu Batzar Nagusiak berretsi arte.



47. ARTIKULUA**ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAK**

- a) Presidenteak, bere kabuz edo gutxienez Batzordeko kideen ehuneko hogeita bostek (% 25) hala eskatzen duenean, egokitzen jotzen duen behar beste aldiz egingo ditu bilera Zuzendaritza Batzordeak. Kasu horretan, berrogeita zortzi (48) orduko epean egingo da bilera. Gutxienez, hilean behin (1) egingo du bilera.
- b) Presidenteak gai zerrendaren arabera zuzenduko du bilera, txandak ezarriko ditu eta gaiak botoetara joko ditu, egokitzen jotzen duenean. Presidenteak erabakiko du botazioa izenduna, sekretua edo bestelakoa izango den.
- c) Erabakiak bertaratuen botoen gehiengoaren bidez hartuko dira, eta presidentearen kalitateko botoa hartuko da kontuan.
- d) Deialdia behar besteko aurrerapenarekin egingo da, salbu eta presidenteak larrialdiko kasutzat jotako kasuetan, eta balioz eratuko da bere kideen gehiengo lehenengo deialdian bertaratzen denean, eta bigarren, gutxienez, bere kideen herena bertaratzen denean. Deialdi baten eta bestearen artean hogeita hamar (30) minutuko tarte egongo da. Aurrekoa gorabehera, Zuzendaritza Batzordea balio osoz eratuko da, aldez aurreko deialdirik gabe ere, kide guztiak bilduta daudenean eta aho batez hala erabakitzen denean.
- e) Zuzendaritza Batzordeko kideek sekretuan mantendu behar dituzte Zuzendaritza Batzordeko deliberazioak eta erabakiak eta ez daukate ahalmenik horiek zabaltzeko. Club Atlético Osasunak egokitzen jotzen dituen hedabideak, Club Atlético Osasunako pertsonak edo organoak informatuko ditu komunikatuen bidez edo Zuzendaritza Batzordeak berariaz izendatutako zuzendarien bidez.
- f) Idazkariak Zuzendaritza Batzordeko bilera guztien aktak idatziko ditu, eta horietan hartutako erabakiak adieraziko dira. Gainera, aktak artxibatuko ditu eta horiekin dagokien liburua osatuko du bere sinadurarekin eta presidentearen oniritziarekin edo dagokion aktako Zuzendaritza Batzordearen buru izan denaren oniritziarekin.

48. ARTIKULUA**INFORMAZIO BATZORDEAK**

Presidenteak Zuzendaritza Batzordearen baitan Informazio Batzordeak eratuko ditu, eta horiei lan edo zerbitzu zehatzak esleitu dizkie Club Atlético Osasunaren garapen onenaren mesedetan.



49. ARTIKULUA

PRESIDENTEORDEA.

Presidenteordeak presidentearen eginkizunak hartuko ditu bere gain, edozein arrazoi dela-eta presidentea ez dagoenean.

Hainbat presidenteorde badaude, horien lehentasun ordena ezarriko da.

50. ARTIKULUA

IDAZKARIA

Hauek dira idazkariaren eginkizunak:

- a) Batzar Nagusietako eta Zuzendaritza Batzordeetako aktak idaztea.
- b) Oharrak eta deialdiak egitea.
- c) Bazkideen erregistro liburua kudeatzea.
- d) Urteko memoriak idaztea eta horretarako beharrezkoak diren dokumentuak sinatzea.
- e) Presidenteak ontzat emandako ziurtagiriak egitea.
- f) Erakundearen artxibo osoa zaintzea.

51. ARTIKULUA

DIRUZAINA

Hauek dira diruzainaren eginkizunak:

- a) Club Atlético Osasunaren diru sarrerak eta gastuak kontrolatzea.
- b) Ordainketak egitea ematen zaizkion igorpenen arabera eta Club Atlético Osasunaren sinadura baimendua duten bi (2) pertsonak sinatzen badituzte, gutxienez.
- c) Kutzako mugimendua kontrolatzea, eta beste edozein dokumentu finantzarioren txekueak, taloiak, ordaindukoak eta letrak sinatu ahal izatea, horretarako sinadura baimendua duen beste pertsona batek lagunduta.



d) Club Atlético Osasunaren funtsak eta kredituak zaintzea, kutxako sarrera eta irteerak, bankuko kontuak eta aktibo likidoak kontrolatuz.

52. ARTIKULUA

BATZORDEKIDEAK

Batzordekideei dagokie presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen eskumena diren gai guztietan esku hartzea, Zuzendaritza Batzordeak adosten dituen eginkizunak gauzatuz.

53. ARTIKULUA

ARDURAK

Club Atlético Osasunaren Zuzendaritza Batzordeko kideek erantzukizuna izango dute Club Atlético Osasunaren, bazkideen eta hirugarrenen aurrean, erru edo zabarkeria larriarekin egindako egintzengatik edo omisioengatik sortzen dituzten kalteengatik edo zorrengatik.

54. ARTIKULUA

ZENTSURA MOZIOA

a) Zentsura mozioa Batzar Nagusian aurkeztu ahal izango da aparteko bileran. Club Atlético Osasunaren bazkide hautesleen ehuneko bostek (% 5) gutxienez deialdia eginda egingo da bilera hori.

b) Zentsura mozioaren eskaeraren aurkezpen formalaren aurretik, zerrendan lehenengoak direnek Hauteskunde Batzordeari idatzi bat bidaliko diote beraien helburuaren berri emateko eta, aldi berean, eskatuko diote Hauteskunde Batzordeak entrega diezazkietela eredu ofizialeko boto paperak eskatzen den beharrezko babesak justifikatzeko. Boto paper horietan, ondo irakurtzeko moduan, jasoko dira bazkidearen izena, bi abizenak eta zenbakia, identitate dokumentua, eskuzko sinadura eta data, eta sinatzen duen bazkidearen identitate dokumentuaren fotokopia erantsiko da.

c) Behar bestekoak diren babesak jaso ostean, zentsura mozioaren proposamenean presidente berriaren izena jasoko da eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzorde berri batena. Era berean, dokumentazio hau erantsiko da:

c.1) Presidente izan nahi duen hautagaiaren izena eta abizenak, baita sinadura bidezko bere onarpena ere, bazkide txartelaren eta NANaren alde bietako fotokopia eta bizilekua Nafa-



rroan duela adierazten duen ziurtagiria.

c.2) Zuzendaritza karguak hartuko dituzten hautagaien izena eta abizenak, bazkidearen zenbakiarekin eta sinadura bidezko haien onarpenarekin.

c.3) Hautagaitza osatzeko nahitaezko banku abala, presidentearen hautagaitza osatzeko eskatutakoaren parekoa, baita abalaren legitimotasuna baliozkotzeko Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen baimenak ere.

c.4) Era berean, presidente edo Zuzendaritza Batzordeko kide izateko beharrezkoak diren baldintza guztiak bete beharko dira.

d) Hauteskunde Batzordeak aurkeztutako babesak eta zentsura mozioaren prozesuko baldintza guztiak baliozkotu ondoren, hilabete bateko (1) gehieneko epean, Aparteko Batzar Nagusi baten deialdia egin beharko du eta, bertan, aipatutako zentsura mozioa onartuko du ala ez.

e) Proposatutako presidentea eta bere Zuzendaritza Batzordea hautesle gisa izendatuko dira automatikoki mozioa onartzen bada. Presidente berriaren agintaldia eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzorde berriarena, kargugabetutako presidenteari legokiokeen agintaldiaren amaierara arte luzatu ahal izango da.

f) Zentsura mozioa eztabaidatuko den Batzarrean hautagaiak zentzuzko denbora tartean bere programa azalduko du, eta zentsuratzen den presidentek erantzun ahal izango du denbora tarte berdinarekin. Jarraian, batzarkideek parte hartzeko txanda bat izango dute aurreko parte hartzaileek izandako denbora tarte berdinarekin, eta, azkenik, gaia botatuko da.

g) Zentsura mozioa Batzarra eratu duten kideen gehiengo soil bidez onartuko da.

h) Mozioa ez bada onartzen, baztertutako hautagaitza aurkeztu zuten kideek ezingo dute beste bat aurkeztu uneko presidentearen agintaldi osoan zehar.

6. ATALA

KUDEAKETA BATZORDEA

55. ARTIKULUA

IZENDAPENA

Presidenteak eta bere Zuzendaritza Batzordeak dimititzen badute, eta Hauteskunde Batzordeak deitutako lehenen-



go hauteskunde prozesua presidentea izendatu gabe amaitzen bada, Kudeaketa Batzordea izendatuko da.

56. ARTIKULUA

KUDEAKETA BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

- a) Kudeaketa Batzordea presidente batek eta lau batzordekidek osatuko dute.
- b) Kudeaketa Batzordeko presidente izendatuko da Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen presidentea, eta, era berean, Kudeaketa Batzordeko gainerako kideak izendatzeko ardura izango du Club Atlético Osasunaren gobernu organoetako, Bazkidearen Defentsarako Organoko, Hauteskunde Batzordeko, Diziplina Batzordeko eta Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideen artetik.
- c) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko presidentek ez badu kargua onartzen, Club Atlético Osasunako, Bazkidearen Defentsarako Organoko, Hauteskunde Batzordeko, Diziplina Organoko eta Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko gobernu organoetako kideek, bilera urgente batean, presidentea eta Kudeaketa Batzordea osatuko duten lau kideak izendatuko dituzte.
- d) Ezin bada Kudeaketa Batzorde bat izendatu, Hauteskunde Batzordeak Club Atlético Osasunaren zuzendaritzaren atribuzioekin jarraituko du, Kudeaketa Batzordeari esleitutakoak barne.
- e) Kudeaketa Batzordeak Club Atlético Osasunaren presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen ohiko ordezkaritza eta administrazio eginkizunak egingo ditu.

7. KAPITULUA

KUDEAKETAKO INFORMAZIO ETA GARDENTASUN ORGANOA EDO KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEA

57. ARTIKULUA

DEFINIZIOA ETA OSAERA

Kontrol Ekonomikoaren Batzordea Club Atlético Osasunak egindako edo kluba nahasita dagoen eragiketa eta jarduketara ekonomiko, finantzario, fiskal eta administratibo guztiak aztertzeke, ikuskatzeko eta ebaluatzeke arduraduna da, bazkideak informatzeko bere kudeaketaren alderdi garrantzitsuei buruz eta kudeaketa gardenari eta gobernu onarekin bat egin duen kudeaketari ekarpena egiteko helburuarekin.

Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak ez du eginkizun exekutiborik izango eta ez du Club Atlético Osasunaren



Zuzendaritza Batzordea edo gobernu organoak hertsatzeko, zigortzeko edo gaitzesteko erabakirik hartuko, Batzar Nagusiari baitagozkio eginkizun horiek.

Kontrol Ekonomikoaren Batzorde horretakoa izango da, hitzarekin eta botoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izendatutako ordezkari bat (1), baldin eta izendapen hori hitzartzeko, Nafarroako Foru Komunitateak Club Atlético Osasunarekin akordio ekonomikoren bat badu.

Kontrol Ekonomikoaren Batzordea gehienez bost (5) kidek osatuko dute, eta horien artean egongo da, hala bada-gokio, Nafarroako Foru Komunitateko ordezkaria. Aldi berean, bost (5) ordezkari izendatu ahal izango dira. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kidearen kargua ez zaie ordainduko bazkideei. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izendatutako kidearen karguan jarduten duen pertsona ez bada funtzionarioa, ordaindu ahal izango zaio eta, kasu horretan, klubak ordaindu beharko dio.

Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideen artetik hautatuko dituzte presidente eta idazkari lanak egingo dituztenak.

Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen erabaki guztiak gehiengo soil bidez hartuko dira.

58. ARTIKULUA

KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEKO KIDEEN HAUTAKETA.

- a) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideen hauteskundeak Zuzendaritza Batzordeak deituko ditu hiru (3) urtean behin, eta, horrela, eta urte batez, batzordera sartu eta bertatik irteten diren kideek elkarrekin jardungo dute eta eskualdaketa egin ahal izango dute, eta kide guztiek, kideak batera diren aldi horretan, eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte.
- b) Hauteskunde Batzordeak argitara emango ditu hauteskunde prozesuko egutegia eta pausoak, eta kontuan izango dira estatutu hauetan ezarritako baldintzak eta epeak.
- c) Hauteskundeetarako ezarritako data baino hilabete bat (1) lehenago, Club Atlético Osasunak zerrenda bat osatuko du hauta daitezkeen eta gutxienez etenik gabeko hiru (3) urteko antzinatasuna duten bazkideekin. Halaber, sarrera data, izena eta bi abizenak, bazkidearen zenbakia eta NAN zenbakia adieraziko dira.
- d) Zerrenda hori izango da Club Atlético Osasunaren behin-behineko hauteskunde errolda, eta lau (4) egun baliodunetan jendaurrean egongo da bere egoitzan. Epe horretan zehar, bazkideek beren datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzte eta idatziz aurkeztu ahal izango dizkiote Hauteskunde Batzordeari egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak. Batzorde horrek erreklamazio horiek ebatziko ditu eta behin betiko hauteskunde errolda onartuko du bi (2) egun balioduneko epean, hauteskunde erroldaren jendaurreko epea amaitu ondorenetik kontatzen hasita, Bazkidearen Defentsarako Organoari entzunaldia egin ostean.



Hauteskunde Batzordearen amaierako ebazpenak barneko bide asoziatiboa agortuko du.

e) Hauta daitezkeen bazkide gisa baztertuko dira hauek: Zuzendaritza Batzordeko kideak, Club Atlético Osasunaren langileak eta azken hauteskundeetan Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kide izateko hautatu diren bazkideak, beren kargutik kendu badituzte. Halaber, baztertuko dira Zuzendaritza Batzordeko kideen batekin senidetasuna duten bazkide guztiak, zuzeneko lerroko senidetasun mailan mugarik gabe edo alboko lerroko laugarren mailara arte.

f) Hautagaitza aurkezteko baldintza hauek bete beharko dira:

f.1) Organo horri esleitutako eginkizunak egiteko titulazioa eta/edo esperientzia eta/edo kualifikazio profesional egokia izatea. Titulazioen artean egokitzen joko dira Ekonomian, Enpresa Zientzietan, Enpresen Administrazioan, Zuzenbidean, doktoretza, lizentziatura, gradua edo diplomatura izatea, Merkataritzan tituluduna izatea, baita aipatutako diziplinekin zerikusia duen graduondoko ofizial bat duen beste edozein pertsona ere.

f.2.) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko harremanik edo partaidetzarik negozioetan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan, Club Atlético Osasunako Zuzendaritza Batzordeko kideekin eta Zuzendaritzako langileekin.

f.3) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko lan harremanik edo partaidetzarik negozioetan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan Club Atlético Osasunarekin, ezta horrelakorik eduki izana ere interesduna organoan sartu baino urtebete lehenago.

Harremana bat-batean etorri bada, ukitzen dion kideak Batzordeko gainerako kideei berehala eman beharko die horren berri eta dimisioa aurkeztu beharko die, eta libre dagoen lehenengo ordezkioak ordeztuko du.

g) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izendatutako kidea Komunitateak izendatuko du zuzenean, eta ez da beharrezkoa izango aurrez aipatutako baldintzak betetzea.

h) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kide izateko asmoa duten bazkideek hautaketarako ezarritako data baino bi (2) egun balioudun lehenagora arte aurkeztuko dute beraien hautagaitza. Hautagaitza hautagaiak aurkeztu eta sinatuko du. Hautagaitza hori era hauetara aurkeztu ahal izango da:

- Aurrez aurre Club Atlético Osasunaren bulegoetan, NANA aurkeztuta, eskatutako nahi-taezko baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioa erantsiz eta inprimaki ofiziala sinatuta entregatuz.



- Deialdian adierazitako helbidera bidaliz, posta elektronikoaren bidez, inprimaki ofizial sinatua, eskatutako nahitaezko baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia eta NANaren kopia bat. Bi kasuetan, Club Atlético Osasunaren hartu agiri bat jasoko du. Hautagaitzaren aurkezpen eguna egiaztatzeko balioko du hartu agiri horrek. Dokumenturen bat falta bada edo zuzenketa edo aldaketaren bat egin behar bada, bazkideari horren berri emango zaio jakinarazpena jaso duela egiaztatzeko eran.

- i) Hautaketa baino egun bat lehenago Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da deialdiko bazkide hautagarri guztien zerrenda.
- j) Deialdian adierazten den egunean, Batzar Nagusira bertaratutako edo ordeztutako Batzarreko kide bakoitzak (1) hauta daitezkeen hautagaitzetako bi (2) botatuko ditu, eta gehien botatzen diren laurak (4) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kide titular bihurtuko dira eta hurrengo bostak (5) ordezkotako bihurtuko dira. Berdinketaren bat gertatzen bada, Club Atlético Osasunaren antzinatea handiena duena nagusituko da.
- k) Prozesua amaitu ondoren, hautatu diren Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideen zerrenda, baita ordezkotako ere, bazkideek ikusi ahal izango dute Club Atlético Osasunaren webgunean.
- l) Ez badira aurkezten behar beste hautagaitza edo hautatutako kideen kopurua ezarritako gutxienezko behar bada, gobernu organo hori bete gabekotzat joko da; beraz, beste hauteskunde prozesu baten deialdia hasiko da, eta arau berdinek arautuko dute.

59. ARTIKULUA

KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEKO KIDEN AGINTALDIAREN IRAUPENA

- a) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideen agintaldiak lau (4) urte iraungo du, eta berrautatu ahal izango dira epealdi berdinatarako, eta urte batez, sartzen eta irteten diren kideek aldi berean jardungo dute eta eskualdatzea egingo dute.
- b) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideek arrazoi hauengatik utziko dute kargua:
 - b.1) Ezgaitasunagatik edo heriotzagatik.
 - b.2) Bazkide izaera galtzeagatik.
 - b.3) Eginkizunak behin eta berriz ez betetzeagatik edo uzteagatik.
 - b.4) Aparteko Batzar Nagusiak hala erabakitzeagatik.



b.5) Zuzendaritza Batzordeko kide bihurtzeagatik.

b.6) Hautagaitza aurkezteko behar diren baldintzetako baten bat ez betetzeagatik.

c) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideek dimititu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dioten uko egite baten bidez.

Kargu uztea edo dimisioa jakinarazi ondoren, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kide titular bihurtuko da lortutako botoen kopuru handienak ezarritako ordezkapen ordenaren arabera hurrengo hautagaitza, eta berdinketa dagoenean, Club Atlético Osasunako sarrera dataren antzintasuna hartuko da kontuan.

60. ARTIKULUA

KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEKO KIDEEN KONFIDENTZIALTASUNA

Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen betebeharra izango da konfidentziasun zorrotzena mantentzea, hala karguan jarduten duten bitartean nola kargua utzi ondoren, eskura izaten duten informazio eta dokumentazio guztiaren inguruan, salbu eta bere eginkizunetan jarduteko denean edo agindu judizial bidez denean. Betebehar hori ez betetzea falta astuna izango da eta Diziiplina Organoak egokia den eran zigortuko du. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izendatutako ordezkaria konfidentziasunetik salbuesten da, 26/2014 foru legean, abenduaren 2koan, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen horretan eta 14/2019 foru legean, martxoaren 22koan, Nafarroako Foru Komunitateak Club Atlético Osasunaren aldeko abal bat ematea baimentzen duen horretan, baita horiek garatzen dituzten Nafarroako Gobernuak akordioetan ere, ezarritako informazio betebeharrei dagokienez, baldin eta arau horien babesean emandako abalek irauten badute. Ordezkaririk horri Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango dio atal honetan adierazitako gaiei buruzko txostena.

61. ARTIKULUA

KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEKO EGINKIZUNAK

a) Aztertzea, ikuskatzea eta ebaluatzea Club Atlético Osasunak egindako edo Club Atlético Osasuna inplikaturik dagoen edo parte izan den eragiketa ekonomiko, finantzario, fiskal eta administratiboen egintzak, kontratuak eta, oro har, eragiketak. Jarraipen hori etengabekoa izango da.

b) Ekitaldien artean Club Atlético Osasunak kontratatutako zerbitzuen kostuaren inguruan izandako aldakuntzak aztertzea, baldin eta zenbateko handiak badira eta ez badaude justifikatuta aipatutako zerbitzuak hobetzeko.



c) Kontrolatzea hirugarrenei zerbitzuak azpikontratatzeko eragiketa guztiak, izan hornitzailea aldatzeagatik izan langile propioak aldatzeagatik, baldin eta aldaketa baino lehen zegoen kostuaren gain igoera handia ekartzen badute.

d) Zuzendaritza Batzordeak eska ditzakeen kanpoko eta barneko auditoretzen jarraipena egitea.

e) Estatutu hauetan, arlo ekonomikoan, ezarritako betebeharrak bete daitezela bermatzea.

f) Aurrekontuen gauzatzeari jarraipena egitea eta helburuak betetzen direla egiaztatzea, baita Club Atlético Osasunaren diruzaintzaren plangintza, kudeaketa eta egoera egiaztatzea ere.

g) Batzar Nagusiaren deialdia egitea, baldin eta Zuzendaritza Batzordeak behin eta berriz oztopatzen badu Batzordeak bere eginkizunetan jardutea edo irregularitasun larriak detektatzen badira arlo ekonomikoan, bai lege arloan, bai Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen eginkizunetan ezarritako baldintza ekonomikoen aldaketak kontrolatzeko arloan. Bi kasuetan, Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak justifikazio txosten bat egin beharko du.

h) Ezarritako jarraipenaren eta kontrolaren emaitza jasotzen duten txostenak eta dokumentuak bazkideei egitea eta aurkeztea, jarraibide hauen arabera:

h.1) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeak idatzizko bi txosten egingo ditu: bata, ekitaldi ekonomikoaren lehen erdiari buruzkoa izango da eta, bestea, ekitaldi osoari buruzkoa. Bi txostenak Zuzendaritza Batzordeari bidaliko zaizkio horiei alegazioak aurkez diezazkion, hamabost egunetik beherako epean. Batzordeak alegazio horiek aztertu ondoren, behin betiko txostena egingo da, hala eskatzen duten bazkideei eskura jarriko zaiena, eta Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratu beharko da.

h.2) Behin betiko txosten bakoitzak Club Atlético Osasunaren egoeraren ebaluazio objektiboa egingo du, eta ebaluatutako aldiari buruzko oharra eta iradokizunak planteatu beharko dira. Txosten horrek, aparteko kapitulua batean, jaso beharko du Club Atlético Osasunak egindako txosten finantzarioarekin bat ez datorren informazio guztia. Horrela, bazkideek erraz identifikatu eta aztertu ahal izango dituzte desberdintasunak.

h.3) Halaber, zerbitzuen edo azpikontratazioen balioa aldatzeko kontrolari buruzko kapitulu bat ere izango dute txostenek, batzordeak bere eginkizunen baitan ezarrita daukan eran.

h.4) Txostenaren beste kapitulu bat Club Atlético Osasunak duen osasun ekonomikoaren ratioak azaltzeko izango da, baita zor egoera azaltzeko ere.



h.5) Beste kapitulu hauek ere izango ditu. Bata, klubaren betebeharrak fiskalei buruzkoa eta, bestea, bi foru lege hauetako betebeharrak buruzkoa: 26/2014 foru legea, abenduaren 2koa, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena eta 14/2019 foru legea, martxoaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateak Club Atlético Osasunaren aldeko abal bat ematea baimentzen duena, baita horiek garatzen dituzten Nafarroako Gobernuak akordioak ere, baldin eta arau horien babesean emandako abalek irauten badute.

h.6) Batzar Nagusiaren urteko txostenaren azalpenaren ardatza Club Atlético Osasunak aurkeztutako egoera finantzarioen txostenarekin bat ez datozen alderdiak izango dira, eta desberdintasunak eta oharra nabarmenduko dira. Halaber, Club Atlético Osasunak aurkeztutakoari behar diren datu osagarri guztiak erantsiko zaizkio, bazkideek Club Atlético Osasunaren uneko egoera ekonomikoa errazago ulertzeko.

h.7) Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko kideek Club Atlético Osasunaren kaudimenari buruzko iritzi arrazoitu bat adierazi beharko dute.

h.8) Erabaki guztiak gehiengo soilez hartuko dira. Halere, iritziak, erabakiak edo balorazioak ematen diren txostenetan batzordeko kideek erabaki horiek hartzeko modua adieraziko da. Boto partikularra onartuko da eta bere desadostasuna eta arrazoiak jasoko dira. Boto partikularra txostenaren parte izango da, eta haren publikitatea eta zabalkundea egin beharko dira.

i) Baliozkotzea Club Atlético Osasunaren presidente izateko hauteskundeetako hautagaitzek aurkeztutako abalak, baita zentsura moziorako eskatzen dena ere.

j) Kudeaketa Batzordearen buru izatea eta kide izatea. Kontrol Ekonomikoaren Batzordeko presidentea Kudeaketa Batzordearen presidente izendatuko da, betiere Kudeaketa Batzordea eratzeko prozesua hasten bada. Batzordeko gainerako kide guztiak izendatu ahal izango dira eta Kudeaketa Batzordeko kide izan ahalko dira.

62. ARTIKULUA

KONTROL EKONOMIKOAREN BATZORDEAREN ESKUMENAK

a) Aztertzea kontabilitate erregistroak, kontuak, egoera finantzarioak, bankuko laburpenak, kontratuak eta edozein eratako dokumentuak, beharrezkoak badira erakunde honi esleitu zaion helburua betetzeko.

b) Zuzendaritza Batzordearen eta Club Atlético Osasunako langileen arteko loturaren bat duten ekonomia eta lan arloko eragiketei buruzko informazio guztia biltzea.



c) Edozein arrazoi dela-eta Zuzendaritza Batzordeko kideek jasotzen dituzten ordainketei edo dietei buruzko informazio guztia biltzea.

d) Aipatu xedea lortzeko beste edonolako egiaztapenak egitea.

Zuzendaritza Batzordeak eta Club Atlético Osasunaren zuzendaritzako eta kudeaketako kideek erraztu egin beharko diote Kontrol Ekonomikoaren Batzordeari bere eginkizunak gauzatu ahal izateko behar diren leku bat, bitarteko materialak eta giza baliabideak. Gainera, Club Atlético Osasunaren estamentu guztiek lankidetzan aritu beharko dute, bere helburua gauza dezan.

8. KAPITULUA

DIZIPLINA ORGANOA

63. ARTIKULUA

DEFINIZIOA ETA OSAERA

Diziplina Organoak era autonomoan funtzionatuko du eta bere ardura izango da Club Atlético Osasunako bazkideek egindako gertaerak eta ikusitako jarrerak baloratzea eta kalifikatzea, baldin eta salaketa aurkeztu badiote eta baloratzeko eskatzen badiote. Halaber, kasu bakoitzean egokitzen jotzen dituen zigorrak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hark onar ditzan.

Diziplina Organoa gehienez hiru (3) kide titularrek eta hiru (3) ordezkok osatuko dute.

Diziplina Batzordeko kidearen kargua ezingo da ordaindu.

Diziplina Batzordeko kideen artetik hautatuko dituzte presidente eta idazkari lanak egingo dituztenak. Erabaki guztiak gehiengo soilez hartuko dira.

64. ARTIKULUA

DIZIPLINA ORGANOKO KIDEEN HAUTAKETA

a) Diziplina Organoan kide izateko hauteskundeak lau (4) urtean behin deituko ditu Hauteskunde Batzordeak.

b) Hauteskunde Batzordeak argitara emango ditu hauteskunde prozesuko egutegia eta pausoak, eta kontuan izango dira estatutu hauetan ezarritako baldintzak eta epeak.



c) Hauteskundeetarako ezarritako data baino hilabete bat (1) lehenago, Club Atlético Osasunak zerrenda bat osatuko du hauta daitezkeen eta gutxienez etenik gabeko hiru (3) urteko antzinatasuna duten bazkideekin. Halaber, bazkide horien sarrera data, izena eta bi abizenak, bazkidearen zenbakia eta NAN zenbakia adieraziko dira.

d) Zerrenda hori izango da Club Atlético Osasunaren behin-behineko hauteskunde errolda, eta lau (4) egun baliodunetan jendaurrean egongo da bere egoitzan. Epe horretan zehar, bazkideek beren datu pertsonalak kontsultatu ahal izango dituzte eta idatziz aurkeztu ahal izango dizkiote Hauteskunde Batzordeari egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak. Batzorde horrek erreklamazio horiek ebatziko ditu eta behin betiko hauteskunde errolda onartuko du bi (2) egun balioduneko epean, hauteskunde erroldaren jendaurreko epea amaitu ondorenetik kontatzen hasita, Bazkidearen Defentsarako Organoari entzunaldia egin ostean. Hauteskunde Batzordearen amaierako ebazpenak barneko bide asoziatiboa agortuko du.

e) Hauta daitezkeen bazkide gisa baztertuko dira hauek: Zuzendaritza Batzordeko kideak, Club Atlético Osasunaren langileak eta azken hauteskundeetan Diziiplina Batzordeko kide izateko hautatu diren bazkideak, beren kargutik kendu badituzte.

f) Gainera, hautagaitza aurkezteko baldintza hauek bete beharko dira:

f.1) Organo horri esleitutako eginkizunak egiteko titulazioa eta/edo esperientzia eta/edo kualifikazio profesional egokia izatea. Titulazioen artean egokitzat joko dira Zuzenbidean doktoretza, lizentziatura, gradua edo diplomatura izatea, baita aipatutako diziplinarekin zerikusia duen graduondoko ofizial bat duen beste edozein pertsona ere.

f.2.) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko harremanik edo partaidetzarik negozioetan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan, Club Atlético Osasunako Zuzendaritza Batzordeko kideekin eta Zuzendaritzako langileekin.

f.3) Ez izatea zuzeneko edo zeharkako mendeko lan harremanik edo partaidetzarik negozioetan, merkataritza sozietateetan edo antzekoetan Club Atlético Osasunarekin, ezta horrelakorik eduki izana ere interesduna organoan sartu baino urtebete lehenago.

Harremana bat-batean etorri bada, ukitzen dion kideak Batzordeko gainerako kideei berehala eman beharko die horren berri eta dimisioa aurkeztu beharko die, eta libre dagoen lehenengo ordezkioak ordeztuko du.

g) Diziiplina Batzordeko kide izateko asmoa duten bazkideek hautaketarako ezarritako data baino bi (2)



egun baliodun lehenagora arte aurkeztuko dute beraien hautagaitza. Hautagaitza hautagaiak aurkeztu eta sinatuko du. Hautagaitza hori era hauetara aurkeztu ahal izango da:

- Aurrez aurre Club Atlético Osasunaren bulegoetan, NANA aurkeztuta, eskatutako nahitaezko baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioa erantsiz eta inprimaki ofiziala sinatuta entregatuz.

- Deialdian adierazitako helbidera bidaliz, posta elektronikoaren bidez, inprimaki ofizial sinatua, eskatutako nahitaezko baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia eta NANaren kopia bat.

Bi kasuetan, Club Atlético Osasunaren hartu agiri bat jasoko du. Hautagaitzaren aurkezpen eguna egiaztatzeko balioko du hartu agiri horrek. Dokumenturen bat falta bada edo zuzenketa edo aldagetaren bat egin behar bada, bazkideari horren berri emango zaio jakinarazpena jaso duela egiaztatzeko eran.

h) Hautaketa baino egun bat lehenago Club Atlético Osasunaren webgunean argitaratuko da deialdiko bazkide hautagarri guztien zerrenda.

i) Deialdian adierazten den egunean, Batzar Nagusira bertaratutako edo ordeztutako Batzarreko kide bakoitzak (1) hauta daitezkeen hautagaitzetako bi (2) botatuko ditu, eta gehien botatzen diren hirurak (3) Diziiplina Organoko kide titular bihurtuko dira eta hurrengo hirurak (3) ordezeko bihurtuko dira. Berdinak diren bat gertatzen bada, Club Atlético Osasunaren antzinatasun handiena duena nagusituko da.

j) Prozesua amaitu ondoren, hautatu diren Diziiplina Organoko kideen zerrenda, baita ordezekoena ere, bazkideek ikusi ahal izango dute Club Atlético Osasunaren webgunean.

k) Ez badira aurkezten behar beste hautagaitza edo hautatutako kideen kopurua ezarritako gutxienekotik beherakoa bada, gobernu organo hori bete gabekotzat joko da; beraz, beste hauteskunde prozesu baten deialdia hasiko da, eta arau berdinek arautuko dute.

65. ARTIKULUA

DIZIPLINA BATZORDEKO KIDEEN AGINTALDIAREN IRAUPENA

a) Diziiplina Batzordeko kideen agintaldiak lau (4) urte iraungo du. Iraupen hori Diziiplina Batzorde berri bat osatu arte luzatuko da, eta epealdi berdinetarako berriz hautatu ahal izango dira.

b) Diziiplina Batzordeko kideek arrazoi hauengatik utziko dute kargua:



- b.1) Ezgaitasunagatik edo heriotzagatik.
- b.2) Bazkide izaera galtzeagatik.
- b.3) Eginkizunak behin eta berriz ez betetzeagatik edo uzteagatik.
- b.4) Aparteko Batzar Nagusiak hala erabakitzeagatik.
- b.5) Zuzendaritza Batzordeko edo Bazkidearen Defentsarako Organoko kide bihurtzeagatik.
- b.6) Hautagaitza aurkezteko behar diren baldintzetako baten bat ez betetzeagatik.

c) Diziplina Batzordeko kideek dimititu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dioten uko egite baten bidez.

Kargu uztea edo dimisioa jakinarazi ondoren, Diziplina Batzordeko kide titular bihurtuko da lortutako botoen kopuru handienak ezarritako ordezkapen ordenaren arabera hurrengo hautagaitza, eta berdinketa dagoenean, Club Atlético Osasunako sarrera dataren antzintasuna hartuko da kontuan.

66. ARTIKULUA

DIZIPLINA ORGANOAREN EGINKIZUNAK

- a) Behar den diziplina agintea gauzatzea eta aplikatzea.
- b) Ustez egindako arau hausteengatik bazkideei eta zaleei zehapen espedienteak irekitzea eta horiei hasiera ematea.
- c) Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea egokitzen jotzen dituzten eta estatutu hauen arabera diren zehapen proposamenak.
- d) Bere kideetako baten bat izendatzen bada, Kudeaketa Batzordeko kide izatea.

67. ARTIKULUA

EREMUA ETA ARAU HAUSTEEN SAILKAPENA

- a) Estatutuen, hala dagokionean, Barneko Araubidearen Erregelamenduaren eta gainerako araudi sozialaren aurkako ekintzak, eta behar bezala tipifikatuta daudenak, egindako gertaeraren larritasunarekiko zigor



egoki eta proportzional batekin zigortu ahal izango dira.

b) Arau hausteak arin, astun edo oso astun gisa tipifikatuko dira, daukaten garrantziaren eta eraginaren arabera.

c) Arau hauste arinaren zigorra izango da idatzizko ohartarazpena bat egitea, eskubide sozialak etetea hogeita hamar (30) egunetik laurogeita hamar (90) egunera bitartean eta/edo debekatzea Club Atlético Osasunaren instalazioak erabili ahal izatea, epe berdinarekin.

d) Arau hauste astunaren zigorra izango da idatzizko ohartarazpena bat egitea, eskubide sozialak etetea hogeita hamaika (91) egunetik urte batera (1) bitartean eta/edo debekatzea Club Atlético Osasunaren instalazioak erabili ahal izatea, epe berdinarekin.

e) Arau hauste oso astunaren zigorra izango da eskubide sozialak etetea urte batetik (1) hiru (3) urtera bitartean, edo bazkide edo zale izaera behin betiko galtzea, eta erabaki ahal izango da berriz sartzeko aukerarik ez izatea.

f) Arau hausleak zigortuko dira kontuan izanda arau haustearen larritasuna, erruduntasun maila, nahitasuna, egindako gertaeraren ondorioa, arau hausleak behin eta berriz egin izana arau haustea eta gertaerako beste baldintza astungarririk edo aringarririk izan den.

g) Bere erruduntasun maila eta arau haustearen larritasuna alde batera utzita, arau hausleak sortutako kalte guztiak ordaindu beharko ditu.

h) Diziplina Organoak instruitutako diziplina espedienteek erruztatzen den bazkidearen entzuna izateko eskubidea errespetatu beharko dute, salbu eta horri uko egiten badio edo auzi ihesean badago.

i) Ezartzen diren zigor guztiak bazkide bakoitzaren espediente pertsonalean jasoko dira.

68. ARTIKULUA

ARAU HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA

a) Arau hauste arinak. Arau hauste arintzat joko dira berrerorleak ez diren jarrera hauek:

a.1) Legearen, estatutuen, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen erabakien edo elkarbizitza asoziatiboaren arau orokorren aurkako bazkideen edo zaleen ekintzak edo omisioak, baldin eta ez badute arau hauste astun edo oso astunaren kalifikazioa.



a.2) Zuzentasunik eza arina izatea beste bazkide edo zale batzuekin, edo publikoarekin, oro har.

a.3) Club Atlético Osasunaren instalazioetan edo ekipamenduetan kalte arinak sortzea.

a.4) Club Atlético Osasunaren instalazioen barnean publizitariotzat jo daitezkeen ekintzak egitea, Club Atlético Osasunak aurrez baimenik eman gabe.

a.5) Oro har, kalte arin bat sor dezakeen eta astun edo oso astun gisa tipifikatu ez den edozein jarrera.

b) Arau hauste astunak. Arau hauste astuntzat jotzen dira jarrera hauek:

b.1) Arau hauste arinak behin eta berriz egitea. Ondorio horietarako, behin eta berriz egitea izango da, bi (2) arau hauste edo gehiago egitea azken hamabi (12) hilabeteetan.

b.2) Club Atlético Osasunaren instalazioetan edo ekipamenduetan kalte larriak sortzea.

b.3) Club Atlético Osasunaren instalazioetan sartzea edo erakustea jarrera biolentoak, xenofoboak edo arrazistak sortzen, sustatzen edo bultzatzen dituzten pankartak, sinboloak edo banderak eta, bereziki, indarrean dagoen legediak berariaz debekatzen dituenak, salbu eta oso astun gisa kalifikatu behar bada.

b.4) Kirol ikuskizunak arautzen dituzten arauak ez betetzea, ikuskizunak normal egiten eragozteko edo parte hartzaileei edo bertaratutako jendeari kalteak sortzea, baldin eta ez bada arau hauste oso astuna.

b.5) Club Atlético Osasunaren instalazioen barnean estupefazianteak sartzea, edukitzea edo kontsumitzea.

b.6) Instalazio soziala edo kirol instalazioak era kolektiboan inbaditzea.

b.7) Club Atlético Osasunak antolatutako edo Club Atlético Osasunak parte hartzen duen kirol ekitaldi batera sartzeko, bazkide edo zale baten txartela behar bezala ez erabiltzeari bide ematea, salbu eta txartela uzten bada Club Atlético Osasunaren bidez edo haren alde egiten bada. Ondorio horietarako, behar bezala ez erabiltzea izango da txartela doan ez uztea, enkantean jartzea, saltzea, baimendu gabe berriz saltzea edo berriz saltzen saiatzea.

b.8) Dagozkien eginkizunetan jarduten duten kirol agintariek edo Club Atlético Osasunako



langileek emandako aginduak edo jarraibideak ez betetzea.

b.9) Club Atlético Osasunaren Batzar Nagusiaren, Zuzendaritza Batzordearen edo Hauteskunde Batzordearen erabakiak ez betetzea.

b.10) Bere eginkizunetan jarduten ari delako edo bere karguagatik Club Atlético Osasunaren instalazioetan dagoen edozein pertsonari eraso egiten saiatzea, fisikoki edo hitzen bidez.

b.11) Club Atlético Osasunaren instalazioen barnean beste ikusle edo bisitari batzuekin izandako liskarretan edo sesioetan parte hartzea, betiere ez badira oso astuntzat jotzen.

b.12) Club Atlético Osasunaren instalazioen barnean objektuak jaurtitzea, bereziki, jokalekura.

b.13) Partida ofizial edo lagunarteko bat, edo Club Atlético Osasunaren instalazioetan egiten den edozein ekitaldi larriki nahasten duen edozein jarrera.

b.14) Oro har, Club Atlético Osasunari edozein kalte larri sortzen dion eta oso astun gisa tipifikatzen ez den edozein jarrera.

c) Arau hauste oso astunak: Arau hauste oso astuntzat jotzen dira jarrera hauek:

c.1) Arau hauste astunak behin eta berriz egitea. Ondorio horietarako, behin eta berriz egitea izango da, bi (2) arau hauste astun edo gehiago egitea azken hamabi (12) hilabeteetan.

c.2) Club Atlético Osasunaren instalazioetan eta/edo ekipamenduetan kalte nabarmenak sortzea.

c.3) Legearen, estatuen edo Batzar Nagusiaren erabakien aurka bazkideak edo zaleak edozein ekintza edo omisio egitea, engainua edo fede gaiztoa dagoenean tartean.

c.4) Club Atlético Osasunaren organoen bilerak, hauteskundeak, zentsura boto bat edo horien emaitzak ohiko eran egitea eragozten, oztopatzen, predeterminatzen edo nahasten duen edozein ekintza egitea.

c.5) Partida, proba edo lehiaketa bat ohiko eran egitea larriki eragozten duten eta behin-behinean edo behin betiko etetea derrigortzen duten jarrerak izatea.

c.6) Club Atlético Osasunaren instalazioetan arma zuriak edo su armak sartzen saiatzea edo edukitzea.



- c.7) Kargua dela-eta ezagutzen diren gaietan sekretuak urratzea.
- c.8) Club Atlético Osasunaren ondasunak eta baliabideak norberaren mesederako erabiltzea.
- c.9) Club Atlético Osasunak bazkideei edo zaleei esleitutako gonbidapenak edo sarrerak saltzea.
- c.10) Oro har, edozein jarrera, ekintza, erakustaldi, errespetu falta, hitzezko edo idatzizko adierazpen, izan indibiduala izan kolektiboa, Club Atlético Osasuna horregatik zigortzen bada.

69. ARTIKULUA

DIZIPLINA PROZEDURA

- a) Diziiplina prozedura Diziiplina Organoak hasi ahal izango du ofizioz edo Club Atlético Osasunako edozein bazkidek edo zalek salatutakoan.
- b) Arau hauste arintzat jo daitekeen gertaera bat izan dela jakiten den unean, Diziiplina Organoak berehala ebatziko du, interesdunari entzunaldia egin ondoren.
- c) Egindako gertaera arau hauste astun edo oso astuntzat jo daitekeenean, Diziiplina Organoak espediente bat hastea erabakiko du, gertaerak eta ardurak argitzeko. Espedientearen instrukzioa Organoko kide bati esleituko zaio eta Bazkidearen Defentsarako Organoari jakinaraziko zaio espedientea ireki dela. Instrukzioa amaitzen denean, aurrez interesdunari entzunaldia eginda, Diziiplina Organoak Zuzendaritza Batzordeari proposatuko dio erabakia, espedientearen jasotzen denarekin bat etorriko dena. Erabaki hori idatziz jakinaraziko zaio interesdunari.
- d) Diziiplina espedientea hasteko erabakia ukitzen dion bazkideari edo zaleari modu fede emaillean jakinaraziko zaio, eta horrek bost (5) egun balioduneko epean, jakinarazpenetik kontatzen hasita, Diziiplina Organoko edozein kide ezetsi ahal izango du hari zuzendutako idatzi baten bidez, indarrean dagoen ordenamenduan onartutako edozein arrazoiengatik.
- e) Espedientea hasitakoan, Diziiplina Organoak beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa eta proba guztiak izango ditu bere eskura, esaterako, interesdunaren deklarazioa, lekukoen lekukotza, dokumentazioa, etab. Diziiplina Organoak baztertu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen ez dituen probak, ez dutelako zerikusirik gertaerekin edo luzamenduzko helburua dutelako.
- f) Diziiplina Organoak proposatutako eta Zuzendaritza Batzordeak ezarritako zigorrei errekurtsioa jarri ahal izango zaie Batzar Nagusian. Batzar Nagusiak horri buruz ebatziko du egiten duen lehenengo aparteko bileran. Batzar Nagusiak hartzen duen erabakia amaierakoa izango da, eta barneko bide asoziatiboa agortuko



da; halaber, ezingo da Diziplina Organoak ezarritako arau haustearen edo zigorraren kalifikazioa larriagotu.

g) Arau haustek baloratuko dira, zigorrak aplikatzen direnean, kontuan izanda erantzukizunetik salbuesten, erantzukizuna arintzen eta larriagotzen duten baldintzak izan diren ala ez.

h) Bazkideak edo zaleak eskubidea du entzuna izatekoa bere aurkako diziplina neurriak hartu aurretik eta neurri horiek hartzeko gertaeren berri izatekoa aurretik; hala dagokionean, zigorra ezartzen duen erabakia arrazoitu egin beharko da.

Erabakia era fede emaillean jakinaraziko zaio interesdunari eta jar daitezkeen errekursoak eta errekursoak jartzeko epea adieraziko dira.

i) Espedientea hasteko erabakiaren eta amaieraren artean ezingo dira pasatu laurogeita hamar (90) egun natural baino gehiago. Interesdunak defentsarako idatzia aurkezten duen egunetik hasi eta adostutako proba guztiak gauzatu arte ezingo dira pasatu hogeita hamar (30) egun natural baino gehiago. Salbuespenezko baldintzak daudenean edo espedientea konplexua bada, Diziplina Organoak espedientearen tramitazioa luzatzea erabaki ahal izango du, hogeita hamar (30) egun naturaleko epealdi gehigarri batez.

j) Ofizioa iraungi gisa deklaratzek edo interesdunak hala eskatzek ez du eragotziko beste diziplina espediente bat hastea, baldin eta egindako arau haustea ez bada preskribatu.

k) Gertaera berarengatik inor ez da zigortuko bi (2) aldiz, zigortzen duen erakundea edozein izanda ere.

l) Kirol diziplinako eskumenetik kanpoko arau haustek eta erantzukizunak zuzenbide erkideak arautuko ditu.

m) Edozein diziplina zehapen ezartzek ez du arau hauslea salbuesten sortu dituen kalteak Club Atlético Osasunari ordaintzeko, indemnizatzeko edo dirua itzultzeko betebeharretik.

n) Prozedura hasi ondoren, ustezko arau haustea legez kontrako penala dela uste badu Diziplina Organoak, berehala Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dio batzorde honek erabaki dezan eskumena duten agintari judizialei gertaeren berri emateari buruz eta prozedura etetea ebatz dezan agintari judizialak erabaki irmoa eman arte, hala dagokionean. Diziplina espedientearen tramitazioa berriz hasten denean, ematen den eba-
zpenak aipatutako erabaki judizialak dituen gertaeren balorazioa errespetatu beharko du.

70. ARTIKULUA

ARAU HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN PRESKRIPZIOA.

a) Arau hausteengatik erantzukizuna kasu hauetan amaituko da:



a.1) Zigorra betetakoan.

a.2) Arau haustea preskribatutakoan.

a.3) Zigorra preskribatutakoan.

a.4) Erruztatua hildakoan.

a.5) Zigorra kendutakoan.

b) Arau hauste arinak egin eta sei (6) hilabetera preskribatuko dira, astunak bi (2) urtera eta oso astunak hiru (3) urtera. Arau haustea preskribatzeko epea hasiko da arau haustea egin zen egunetik kontatzen hasita. Preskripzioa eten egingo da prozedura hastea erabakitzen den unean eta interesdunak horren berri izango du; horretarako, hori erabakitzen duen ebazpena behar bezala erregistratuko da, eta epea berriz hasiko da pasatzen, espediente hilabete batetik (1) gora geldituta badago.

c) Zehapenak preskribatzeko epea hasiko da kontatzen, zehapena ezartzen duen ebazpena irmoa den egunaren biharamunetik aurrera. Ezarritako zehapenak epe hauetan preskribatuko dira: arau hauste arinak urte batera, astunak bi (2) urtera edo oso astunak hiru (3) urtera.

IV. TITULUA

DOKUMENTUEN, KONTABILITATEAREN, EKONOMIAREN ETA FINANTZEN ARAUBIDEA

1. KAPITULUA

DOKUMENTUEN ETA KONTABILITATEAREN ARAUBIDEA

71. ARTIKULUA

DOKUMENTUEN ETA KONTABILITATEAREN ARAUBIDEAREN OSAERA

Club Atlético Osasunaren dokumentuen eta kontabilitatearen araubidea hauek osatuko dute:

a) Bazkideen erregistro liburua. Bertan jasoko dira bazkideen datu pertsonalak, eta alta eta baja datak zein oharrek zehaztuko dira. Ohar horietan, besteak beste, adieraziko dira Club Atlético Osasunaren edozein organotan izandako karguak, ezarri zaizkion zigor irmoak eta bazkide izaeraren etetea eta iraupena. Bazkideen erregistro liburua eskusiboki sistema informatiko eta/edo baliabide digital bidez eratu ahal izango da.

b) Batzar Nagusietako aktak. Horietan jasoko dira Batzar Nagusietako, bai ohikoetako bai apartekoetako,



erabakiak eta Zuzendaritza Batzordearen erabakiak. Aktak presidenteak eta idazkariak sinatuko dituzte, eta, halaber, bilerara bertaratu diren Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek ere sinatu ahal izango dituzte.

Batzar Nagusietako aktak Batzarrean hautatutako hiru (3) batzarkidek ere sinatuko dituzte. Aktak euskarri informatikoan eta/edo bitarteko digitalean idatzi ahal izango dira.

c) Club Atlético Osasunaren gobernu organo bakoitzaren akten liburuak. Aurrez adierazitako baldintzen arabera eratuko dira liburu horiek.

d) Lagunarteen erregistro liburua.

e) Kontabilitateko liburuak. Club Atlético Osasunaren diru sarrera eta gastu guztiak eta kontabilitateko idazpen guztiak agertuko dira liburu horietan, Liga Nacional de Fútbol Profesional erakundearen eta unean-unean indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorraren zehaztapenen arabera.

f) Egoera balantzeak eta urteko emaitzen kontuak.

Dokumentazio hori guztia baliabide eta euskarri informatikoen bidez eratu eta gorde ahal izango da.

2. KAPITULUA

EKONOMIA ETA FINANTZA ARAUBIDEA

72. ARTIKULUA

AURREKONTU ARAUBIDEA

a) Club Atlético Osasuna aurrekontu araubidearen eta ondare propioaren mende dago.

b) Club Atlético Osasunak bere ondareak helburu industrialetara, komertzialetara, profesionaletara edo zerbitzu helburuetara bideratuko ditu edo izaera berdineko jarduerak gauzatuko ditu, balizko errendimenduak osorik bere helburu sozialaren kontserbaziorako aplikatzen direnean eta ezingo dira etekinak banatu bazkideen artean.

c) Club Atlético Osasunaren diru sarrera guztiak kirol jarduerak sustatzeko eta garatzeko eta helburu soziala betetzeko aplikatuko dira eskusiboki.



V. TITULUA.**CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN ESTATUTUAK ALDATZEA.****73. ARTIKULUA**
ESTATUTUAK ALDATZEA

- a) Club Atlético Osasunaren estatutuak partzialki edo erabat aldatzeko proposamena Batzar Nagusiari aurkeztuko zaio aparteko bileran, eta Zuzendaritza Batzordeak deituko du Batzarreko kideen ekimenez. Kide horiek Batzarreko kideen ehuneko hogeita (% 20) izango dira gutxienez edo Club Atlético Osasunaren bazkideen ehuneko bi (% 2), baldin eta adin nagusikoak badira eta gutxienez etenik gabeko urte bateko (1) antzintasuna badute.
- b) Estatutuak aldatzeko eskaeraren aurkezpen formalaren aurretik, proposamenaren buruek Zuzendaritza Batzordeari idatzi bat bidaliko diote beraien helburuaren berri emateko eta, aldi berean, eskatuko diote Zuzendaritza Batzordeak entrega diezazkietela eredu ofizialeko boto paperak eskatzen den beharrezko babesa justifikatzeko. Boto paper horietan, ondo irakurtzeko moduan, jasoko dira bazkidearen izena, bi abizenak eta zenbakia, identitate dokumentua, eskuzko sinadura eta data, eta sinatzen duen bazkidearen identitate dokumentuaren fotokopia erantsiko da.
- c) Era berean, estatutuak aldatzea proposatu ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak.
- d) Deialdi eskaeran, estatutuak aldatzeko proposamena ere egongo da, formulatutako idazketarekin.
- e) Estatutuen aldaketa eztatutako den Batzarrearen deialdia Zuzendaritza Batzordeari eskatu ondoren, Batzorde horrek deialdia egingo du hilabete bateko (1) gehieneko epean, proposamen idatzia Club Atlético Osasunaren sartzen den egunetik kontatzen hasita, eta hori ez badu egiten Zuzendaritza Batzordeak, Hauteskunde Batzordeak izango du baimena deialdi hori egiteko.
- f) Estatutuen aldaketa eztatutako den Batzarrean proposatzen duen kolektiboak zentzuzko denbora tartean bere proposamena azalduko du, eta Zuzendaritza Batzordeak erantzun ahal izango du denbora tarte berdinarekin. Jarraian, batzarkideek parte hartzeko txanda bat izango dute aurreko parte hartzaileek izandako denbora tarte berdinarekin, eta, azkenik, gaia botatuko da.
- g) Estatutuak aldatzeko proposamena bertaratu eta ordeztu bi herenen gehiengoarekin onartu beharko da. Batzarrek estatutuak aldatzeko proiektua idazteko ardura izango duen Batzorde bat sortzea adostu ahal izango du.
- h) Estatutuen aldaketa onartzen ez bada, ezingo da beste proposamen bat aurkeztu urte bat (1) pasatu arte, estatutuen aldaketa bat landu den azken Batzarretik kontatzen hasita.



VI. TITULUA**CLUB ATLÉTICO OSASUNA DESEGITEA, BAT EGITEA,
XURGATZEA EDO TRANSFORMATZEA.****74. ARTIKULUA****DESEGITEKO, BAT EGITEKO, XURGATZEKO EDO TRANSFORMATZEKO MODUA**

- a) Club Atlético Osasuna desegin, bat egin, xurgatu edo transformatu ahal izango da, Batzar Nagusiko kideen hiru laurdenak erabakita aparteko bileran eta Club Atlético Osasunaren bazkide hautesle guztien hiru laurdenek berretsiko dute, erreferendumean. Egun baliogabe batean egingo da erreferendum hori. Transformazioak ez du desegiterik eta likidaziorik ekarriko, baizik eta klub gisa erregistroa baliogabetzea bakarrik.
- b) Eskumena duen agintari judizialak edo gobernuko agintariak emandako ebazpen irmoarengatik eta arrazoituarengatik.
- c) Club Atlético Osasuna desegingo balitz, eskura dauden ondasun guztiak Nafarroako Foru Komunitateko irabazi asmorik gabeko erakundeen artean banatuko dira. Futboleko kirol jarduera sustatzera eta gauzatze-
ra bideratuko dira ondasun guztiak.
- d) Kluba desegitea adostu ondoren, Batzar Nagusiak bere kideen artetik hiru (3) likidatzaile hautatuko ditu. Horiek legeak aitortzen dizkien eskumenak izango dituzte, Batzarrak ematen dizkienaz gain. Likidazio fasean, presidentearen eta Zuzendaritza Batzordearen ordezkaritza amaituko da kontratu berriak sinatzeko.

VII. TITULUA**LAGUNARTEAK****75. ARTIKULUA****LAGUNARTEAK**

Lagunarteak indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera eratutako elkarteak dira eta dagokien erregistro ofizialean inskribatuta daude.

Club Atlético Osasunak begiramen berezia izango du Club Atlético Osasunaren helburuei laguntzen dieten elkar-
teekin. Horregatik, indarrean dagoen araudiaren arabera eratu ondoren eta Club Atlético Osasunaren lagunarte
gisa Zuzendaritza Batzordeak aitortu ondoren, izaera horri dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.



76. ARTIKULUA**CLUB ATLÉTICO OSASUNAREN LAGUNARTE OFIZIAL BAT IZATEKO BALDINTZAK**

Lagunarte izateko nahitaez bete beharreko baldintzak:

- a) Legez eratu dela egiaztatzea eta dagokion erregistro ofizialean inskribatzea.
- b) Club Atlético Osasunari inskribatu dezala eskatzea.
- c) Gutxienez, Club Atlético Osasunaren hamar (10) bazkide edo zale izatea. Lagunarteak Club Atlético Osasunari jakinaraziko dio lagunarteko kideen zerrenda, dagokien NANarekin eta bi abizenekin, baita inskripzioaren unean bazkidea edo zalea denaren zenbakia ere.
- d) Egoitza eta helbide propioa izatea.

77. ARTIKULUA**ESKAERA ETA BETEBEHARRAK**

a) Club Atlético Osasunaren Lagunarte Ofiziala izan nahi duten interesdunek eskaera bete eta Club Atlético Osasunaren bulegoetan entregatu beharko dute. Eskaera horretan datu hauek jaso beharko dira:

- a.1) Lagunartearen izena, baita bere ezaugarri bereizgarriak ere.
 - a.2) Egoitza.
 - a.3) Harremanetarako pertsonaren datuak.
 - a.4) Legez eratu dela egiaztatzen duten dokumentuak eta dagokion erregistroko inskripzioa.
 - a.5) Lagunarteaosatzen duten kide kopuruaren deklarazioa, Club Atlético Osasunaren bazkide edo zale direnak zehaztuz.
- b) Ez dira baimenduko lehendik dauden lagunarteen izenak, ezta Club Atlético Osasunaren balioen aurka (gizalegea, gizarteratzea, kirol legea, elkartasuna, tolerantzia, etika eta joko garbia) egiten dute horien ezaugarri bereizgarriak ere.
- c) Lagunarteek ezingo dute egin Club Atlético Osasunaren eskubideei, irudiari, markei eta beste edozein



eskubideri eragiten dien merkataritza jarduerarik.

d) Lagunartek ezingo dute zuzenean edo zeharka erabili Club Atlético Osasunaren irudia, Club Atlético Osasunaren aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe. Club Atlético Osasunaren irudia baimenik gabe erabiltz gero, baja emango zaio Club Atlético Osasunaren lagunarte ofizial gisa.

e) Lagunarte ofiziala izateak ez dio erantzukizunik ekarriko Club Atlético Osasunari lagunartearen sorkuntzari, funtzionamenduari, jarduerari eta balizko desegiteari dagokienez, eta lagunarteko kideak izango dira erantzule bakarrak.

f) Urtero eguneratu beharko da Club Atlético Osasunaren lagunarteen zerrenda, eta NANA, izena eta bi abizenak adierazi beharko dira, baita denboraldi horretan aktibo dagoen bazkide edo zale zenbakia ere.

78. ARTIKULUA

LAGUNARTE IZAERA GALTZEA

Lagunarteen erregistroan baja emango zaie ekintza hauek egiten dituzten lagunarteei:

- a) Dagokien herrialdeetako edo autonomia erkidegoetako legedia ez betetzea.
- b) Araudi honetan ezarritako betebeharretako edozein ez betetzea.
- c) Biolentzia, arrazismoa, xenofobia edo intolerantzia edozein eratan sustatzea.
- d) Club Atlético Osasunari emandako datuak faltsutzea, lagunarte ofizial bat sortzeko ezarritako baldintzei dagokienez.
- e) Club Atlético Osasunaren lagunarte erregistroan inskribatutako lagunarteko kideen kopurua gutxitzea, lagunartea osatzeko ezarritako gutxienezko iritsi gabe.



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Erregelamendu guztiak ondoriorik gabe gelditzen dira estatutu hauei aurka egiten badiote, baita aurreko estatutu guztiak ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.

Estatutu hauetan epeez jarduten denean eta ez bada zehazten baliodunak edo naturalak diren, balioduntzat joko dira, eta ez dira kontatuko ez larunbata ez igandea ezta jaiegunak ere, eta dataz datako hilabetez jarduten denean, estatutu hauetan ezarritako epeen azken eguna egun baliogabea edo jaiegun bat bada, epea hurrengo lehenengo egun baliodunaren bukaeran amaituko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.

Barneko bide asoziatiboa amaitzen den gai guztietan, jurisdikzio arrunta egongo da irekita, bidezko erreklamo-zioetarako.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.

Estatutu hauek indarrean egongo dira Nafarroako Kirolaren Erregistroan inskribatzen direnean.



C. A. Osasunaren Estatutuak

AZKEN EGUNERAKETA 2023KO AZAROA



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA